

## Colette Capdevielle

PS

«Ez dut ulertu Spagnacek emendakina jartzea eta aldi berean manifestazioan egotea»



- **Uholdeak** Ibaiei kendutako eremua itzultzeko beharra
- **Net Hurbil** Laborariei autonomia garatzen laguntzen die AFOG elkarteak
- **Ixabel Millet** «Kultura bat zertan datzan ezagutzeko modua da mitologia»
- **Iñaki Salvador**, Euskadiko Musikari Elkarteak «Musikariok bakarka aritzen gara baina arazo asko estrukturalak dira
- **Semente ikastetxea** Galizierazko eskolaren lehen hazia



# berriak 10 urte

**Ekainak 22**

Martin Ugalde Kultur Parkea

**Andoain**

**berria**

**11:00etatik 12:30era,  
BERRIA ezagutzeko aukera**

**11:00etan,  
Irrien Lagunak- Kanta eta dantza**

**12:00etatik 13:00era,  
Sagardo dastaketa**

**13:30ean,  
ekitaldi  
nagusia**

**12:00etatik 12:30era, bertsolariak:  
Arrate Illaro, Odei Barroso  
eta Beñat Gaztelumendi**

**14:00etan,  
bazkaria**

**16:00etan, kontzertua:  
Napoka Iria, Petti eta Morau  
18:00etan, kontzertua: Gose**

Txosna, ogitartekoak, pintxoak... Bazkarirako txartelak, 10 euro. Erreserbatu 943-30 43 45 telefonoan. Txartelak egunean bertan banatuko dira BERRIAko harreran. Gainerako ekitaldiak, DOAN!

Antolatzailea: **berria**

Babesleak:  Gipuzkoako Foru Aldundia

 LABORAL Kutxa

 Irizar

Laguntzailea: **Kaiku**





Azaleko argazkia:  
DANI BLANCO  
Azala: GARBINE  
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginuz gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruñia. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA  
Hizkuntza Politikarako Salburuordetzak  
diruz lagundua



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



## NON ZER

2013ko ekainaren 23a, 2.374. zenbakia

### ASTEKO GAIA

**UHOLDEAK** Adabakietatik neurri eraginkorretara.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 4

### PERTSONAIA

**IXABEL MILLET:** «Euskal mitologiak erakusten digu hemen emakumeak onetsiak zirela». REYES ILINTXETA / 10

### GAIK

**BERANDUEGI** Gelditu makinak, benetan. GORKA BEREZIARTUA  
MITXELENA / UNAI BREA / 16

### IRITZIAREN LEIHOA

**IPAR ATLANTIKOKO MERKATU BAKARRERANTZ**

MIKEL ZURBANO / 18

**AGUR** KARLOS GORRINDO ETXEANDIA / 20

**ESPAGN-AC** IXABEL ETXEBERRIA / 21

**NAFARROA, EUSKAL LURRALDE TASUNAREN GAKOA**

PATXI ZABALETA / 22

**GORA PRO NOBIS** ASISKO URMENETA / 19

**TXANDAN** Odolezko marrubiak. ITXARO BORDA / 20

**BERTSO BERRIAK** Ihesaldiaren arnasa.

ODEI BARROSO GOMILA / 21

### ERDIKO KAIERA

**IÑAKI SALVADOR:** «Internet zoragarria da baina ezin du beste guztiaren ordezkotza izan». IKER BARANDIARAN / 23

**LITERATURA** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 28

**MUSIKA** JOXI UBEDA / 29

**DENBORA-PASAK** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

**ALEA** Balet beltza. UNAI BREA / 31

**ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA** JOXERRA AIZPURUA / 32

**LANDAREAK** JAKOBA ERREKONDO / 33

**DENBORAREN MAKINA** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

### TERMOMETROA

**COLETTE CAPDEVIELLE:** «Bakoitzak antolatu behar du bere lurralde proiektuaren arabera». MIKEL ASURMENDI / 35

**IBAN ARREGI:** «Geneetan sartuta daukagu izaera komunitarioa». URKO APAOLAZA AVILA / 39

**SEMENTE ESKOLA** Naturari lotua, asanblearioa, eta galizieraz.  
EIDER PALMOU / TXERRA RODRIGUEZ / 42

**HERRI HARRESIA** Neurriak hartu aurrera egiteko.  
LANDER ARBELAITZ / 44

**EUSKARA ALBISTEAK** ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

**EKONOMIAREN TALAIAN** JUAN MARI ARREGI / 47

**NET HURBIL** AFOG, baserri txikien autogestioa sustatzeko eredu bat. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

**MALTZAGATIK** XABIER LETONA / 50



**ASTEKO GAIA**

**UHOLDEAK**

# Adabakietatik neurri eraginkorretara

Urteroko ohitura bihurtu da kasik: ibaiak gainezka egin eta kalte andana uzten dute inguruko etxe, garaje, errepide edo baratzeetan. Adituei ez zaie harritzekoa iruditzen, bere eremu naturala jan diogu ibaiari, eraikinez eta azpiegiturez bete ditugu urari dagozkion bide eta hezeguneak. Behin-behineko hormek eta dragatzeek ez dute arazoa konpontzen, eta garaia da ganorazko neurriei heltzeko.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |





IDOIA ZABALETA / ARGAZKI PRESS

IRUÑERRIAN inoiz erregistraturiko ur-emari handiena jasan berri dute bizilagunek, Argak eta Ultzamak gainezka egin ostean –urak inguratuta eta traktorean harrapatuta zegoen gizon bat helikopterok erreskatatu behar izan zuten–. Senperen, Ezpeletan eta Azkainen ere kalte ugari eragin zuen Urdazubi ibaiak. Pasa den urtarrilean, 2.000 hektarea baino gehiago hartu zituen gainezka egindako urak Erriberan. 2012ko urrian ere Nafarroa izan zen gaztigatuena eta 2011ko azaroa gogoan izango dute oraindik Getxoko Faduran edo Donostiako Txomin Enean eta Martutenen bizi direnek. Zodiak ontzietan atera behar izan zituzten azken horietako hainbat herri-tar. Etxetik irten ezinik eta argindarrik gabe geratu ziren herri ugariak, errepideak moztu zituzten, tren zerbitzuak bertan behera utzi, Hernanin Elorrabiko zubia erauzi zuen urak,

**lbaian oreka naturala mantentzeko ezinbesteko fenomenoak dira aldizkako uholdeak. Hala ere, klima aldaketaren ondorioz ugari egingo direla diote adituek. Irudian, hilabete honetan bertan Atarrabian izandako ur-ateraldia.**

eta bi lagun hil ziren, ibaiak eramanda: 76 urteko gizon bat Irunen eta 66 urteko emakumea Derion.

Adibide bakanak baino ez dira, eta etorkizunean euri-jasak %10 ugari-tuko direla aurreikusi du Azti-Tecnalia ikerketa zentroak; alegia, uholdeak sarriago jasango ditugula Euskal Herrian, klima aldaketaren ondorioz. Ez da ahaztu behar fenomeno naturala direla euriteak eta hauek eragindako uhaldiak. “Ibaien ekosistemak dinamika propioa dauka eta bere oreka naturala mantendu ahal izateko, aldizkako uholdeak ezinbesteko fenomenoak dira. Ur-goraldiek landarediaren hazkuntza mugatzen dute ibaietan eta ubideak garbitzen dituzte”, diosku Iratxe Garrido Tejedor Eguzki talde ekologistako kideak. Arazoa da, ordea, aipaturiko ekosistemak eraldatuak izan direla, urak gainezka egiteko



## UHOEDEAK

behar dituen eremuak lapurtu dizkiogulako ibaiari, azpiegiturak eraikiz: “Batziek (zubiak, hesiak...) ur-emia mugatzea dute helburu eta beste batziek (urtegiak, presak...) ura biltegitatu nahi dute –argitu du Garridok–. Horri lurzorua artifizialtzea gehitu behar diogu, ura xurga dezaketen lurra gero eta eskasagoak baitira”. Asfaltaturiko ibaiertzetan, gainera, azkarrago iristen da euria ibaietara.

1950eko hamarkadan bizkortu zen ibaiertzen okupazioa, eta ordutik gero eta uholde-esparru gehiago eraldatu eta geureganatu ditugu. Euskal Herriko orografia malkartsuaren ondorioz lautada gutxi dagoenez, “azken bi hamarkadetako etxegintza basatiak ibaien uholde-lautadetan eraiki du”, azaldu digu Garridok. Errepideak, aparkalekuak, zubiak, etxeak eraiki dituzte hezegunetan eta ibaien ubidea estutzea ekarri duten obrak ere egin dira. Areago, Espainiako Estatuak Cambó Legeak sustatu egiten zuen padurak idortu eta okupatzea, gune antzuak zirela argudiatuz. Ekosistema hauen garrantziaren eta arriskuen jakitun ez zirelako, gai honetan agintariak oso geldo eboluzionatu dutela baina azken urteetan administrazioetik ikuspegi aldatzen ari

**“Urak gainezka egiteko behar dituen eremuak lapurtu dizkiogu ibaiari, hezeguneak artifizialdu ditugu, eta ez da nahikoa horiek hustea, ekosistemaren dinamika ulertzea ere ezinbestekoa da”**

Iratxe Garrido, Eguzki

direla uste du Jose Maria Sanz de Galdeanok, URA Uraren Euskal Agentziako Plangintzen eta Lanen zuzendariak.

Hala, gaur egun, urak gainezka egin dezakeen gunea urbanistikoki garatzea galarazi dezake Agentziak, Sanz de Galdeanok gogoratu duenez, eta EAEko Plan Hidrologikoak eta Ibaiertzen Babeserako Lurraldeko Arlo-Planak filosofia horri eusten diotela aipatu digu. Uhaldiak egon daitezkeen eremuetan eraikuntza saihestea da URAREN helburuetako bat. Aldiz, kontrako adibideak ere ikus ditzakegu inguruan. Hernanin esaterako, ibaiak gainezka egin ohi duen Karabel auzoan, uholdeen aurkako arauak ezarri dituzte, baina aldi berean etxe berriak eraikitzen ari dira. Ondarroan, Alleri auzoan, herritarrek sortutako plataforma izan zen hezegunetan 500 etxe eraikitzeko proiektua gelditzea lortu zuena: Auzitegi Gorenak ebatzi zuen babestutako padura ezin dela lur urbanoa izan eta legez kanpoko zela administrazioak aurrera eraman nahi zuen proiektua. Sarri plan urbanistiko hauek udalen esku daudela eta interes ekonomikoak gailentzen direla uste du Iratxe Garridok: “Zonalde jakinetan eraikitzea debekatzen duen araudia nahiko berria da eta

Goiko irudietan, Hernani eta Elizondo 2011ko azaroan; behean ezkerrean, Azkaine, duela aste pare bat; eta eskuinean, erreskatea Passau hirian (Alemania): Europa erdialdean sekulako hondamendia eragin dute izan berri diren uholdeek, hogeitaz hildakotik gora eta milaka eta milaka ebakatu izan dira, batez ere Alemania, Austria eta Hungarian.

TENGR1555-CC



JAGOBA MANTEROLA / A.P.

KAZETA.INFO



AFP

kasu ugaritan gobernuek ez dute behar bezala betetzen; eraiki berri diren azpiegitura eta etxebizitza asko eta asko legez kanpokoak dira”.

**Padurak ibaiari bueltatzea**

Ibaiertzean gehiago ez eraikitzea da lehen urratsa, bai, baina zer egin dagoeneko eraiki den guneetan? Konponbide egokiena eremu horiek erabat hustea dela uste du Garridok, baina gehienetan toki horien artifizialtze maila hain da handia, “ezen jada ezinezkoa da jatorrizko egoera naturalera itzultzea. Dena den, zenbait zonaldetan hezeguneak berreskura daitezke, plan estrategikoak jarraituz, ez baita nahikoa ibaiei urtetan kendutako lurrak bueltatzea, ekosistemen dinamika ulertzea ezinbestekoa da, etorkizun hurbilean sor daitezkeen arazoei aurre egiteko”.

Uraren Euskal Agentziak lehenastunezko 30 proiektu ditu, tartean etxeak eta industrialdeak lekuz aldatzea, kanalizazioak hobetzea, ubide paraleloak sortzea (ur-emari handia datorrenean jatorrizko ubideari laguntzeko), edota babes-azpiegiturak eraikitzea, alternatiba hoberik ez dagoenean. Antzerako egitasmoak ari dira lantzen Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian. Prebentzioaren garrantzia ere azpimarratu du Sanz de Galdeanok, euri-jasak garaiz iragarri eta aurreikustea ezinbestekoa baita behar bezala erantzuteko. Babes Zibilarekin koordinatuta egiten du lan agentziak eta UHATE iragarpen eta alerta goiztiar sistema (zehazki, Uholdeen Aurreikuspen Ta Erabakitze Sistema) probatu dute aurtengo ur-ateraldietan. Aurreikuspenen hutsegiteak, ordea, baliabide falta eta saihestu zitezkeen kalteak eragin ditu Nafarroan, azken uholdeetan.

Zeintzuk dira, dena den, gaur gaurkoz uraldiei aurre egiteko herri askotan hartzen diren neurriak? Hormak edo barrerak altxatzea izaten da aukera nagusietako bat, baina sarri ez da hautu zuzena. Nekazal guneetan oso zabaldua dago urari oztopoa jarri nahian eta inguruko soroak babesteko asmoz barrerak ezartzea, Araba eta Nafarroan bereziki. Horma gaingitu edo apurtuz gero, ordea, emariaren erosio maila eta indarra handitu egiten da, kalteak areagotuz, eta gainera, ordu gutxitan ubidera bueltatuko litzatekeen urak egunak iraungo ditu zelaietan gelditu, hormak galarazi egiten diolako ibaira itzultzea. Oztopoa gaingitzea lortzen ez duenean ere, hormek estututa presio eta abiadura handiagoz jaisten da ura eta aurrerago bortitzago egin dezake gainezka.

**Dragatzea ez da soluzio**

Dragatzea da udalek erabaki ohi duten beste neurrietako bat. Baina ibaiak eurak bakarrik garbitzen eta dragatzen direla azaldu digu

**Zaborrez betetako urak**

IBAIA DRAGATZEAK ez du balio uholdeak saihesteko, baina naturala ez den edozein trabak ur-emaria oztopatzen du, eta beraz, garrantzitsua da ibaiak gizakion zikinkeriatik garbi mantentzea. Urgarden kolektiboa (urgardenbai.blogspot.com) 2012 hasieran sortu zen; Urumea ibaiaren egoera tamalgarria ikusita, zazpi lagun bildu eta ibaia garbitzeari ekin zioten Hernanin. Ordutik, auzolanean 19 garbiketa egin dituzte dagoeneko Gipuzkoan (Urumea, Oria, Deba, Oiartzun eta Molinaok bustitzen dituzten hainbat eremutan). 10-15 kidek osatzen dute Urgarden, bizpahiru orduko garbiketak antolatzen dituzte eta bakoitzean inguruko herritar boluntarioak batzen dira, 20 eta 55 lagun artean guztira. Kideen esanetan, administrazioak bizkarra eman dio ibaiak garbi mantentzeari, ez du isuriaren kontrol egokirik egiten, baina ardura eta erantzukizuna herritarrona ere bada.

Denetik aurkitu dute ibaietan: auto zatiak, motoak, bizikleta asko, plastiko pila bat, komunetik behera botatakoak –“izugarria da zenbat konpresa dauden ibaietan”–, hozkailuak, obretako hondakinak, arropa, ume-kotxeak, 150 bat pneumatiko, jostailuak, altzariak, ordenagailu zatiak, irratiak, txatarra, koltxoia... “Duela gutxi 1,2 tona zabor bildu genituen Oria ibaiako 100 metroetan”. Hain juxtu, Oria ibaia bereziki kutsatuta eta zaborrez betea dagoela nabarmendu dute Urgardenekoek.



URGARDEN

Usurbilen, Oria ibaia garbitzeko lanetan, joan den apirilean.

Sanz de Galdeanok, eta guk dragatzen baditugu, hurrengo uhaldian ibaia aurreko egoerara itzuliko dela berriz, sedimentu berriek beteko baitute hutsik geratu den lekua: “Halako ekin-tzak, beraz, guztiz alferrikakoak dira eta gainera landaredia kentzeak edo ubidea dragatzeak ibaiak andeatzen ditu”. Horregatik, otsailean Gasteizko Udalak Errekaleor eta Santo Tomas ibaietan sasitza kendu eta garbiketa lanak egiteko aurkezturiko milioi bat euroko proiektua diru-xahutze hutsa dela kri-



## Uraldi historikoak Euskal Herrian

1330EKO ZANGOZAKO UHOLDEETATIK HASITA, maki-na bat aldiz egin du gainezka urak gurean. Data esan-guratsuenetatik adibide batzuk hautatu ditugu.

**1380, apirilak 15.** Bilbon, Galdakaon eta Arrigo-riagan nabaritu zuten batez ere. Hiriburuko zubia txikitu zuen urak eta Nerbioi eta Ibaizabal ondoko errotak suntsitu zituen.

**1593, irailak 22.** Historialariek Uholde Handia izendatu zuten. Itsasontziak, amarrak puskatuta, Bil-boko kaleetan barna ibili ziren eta ibaiak San Anton zubiko arkuak eta udaletxeko etxeak eraitsi zituen. Herritarrek Begoñako santutegira igo ziren babes bila.

**1787, irailak 24-25.** Euskal Herrian inoiz jazotako uholderik larriena izan omen zen. Presioak eraginda, Esako harrizko zubia apurtu eta Zangoza hartu zuen urak. Bi metroko altuerara iritsi zen herriko kaleetan, 465 eraikinetatik 428 birrindu zituen eta guztira 556 bizilagun hil ziren (biztanleriaren %18).

**1834, ekainak 30.** Gipuzkoa mendebaldean sufri-tu zituzten ondorio larrienak eta 39 herritar hil ziren—gehienak Debabarrena eta Debagoienan—.

**1913, ekainak 2.** Baztan eta Errobi ibaiaren hara-na izan ziren kaltetuenak, bereziki Erratzu herria. Hiru hildako utzi zituen Elizondon, bat Bidarrain eta beste bat Itsasun.

**1933, ekainak 16.** Oiartzun ibaiak Erreterria izan zuen jomuga. Ura 5 metroko altuerara ailegatu zen eta fabrika eta instalazio ugari txikitu zuen. Urrian uholde bortitzagoa jasan zuten eta Oiartzun ibaia

behar bezala bideratzeko proiektua agindu zuten; obrak urtetan luzatuko ziren ordea.

**1953, urriak 14-15.** Truxuak bota zituen ordu gutxian eta Gipuzkoan izan zuen eraginik handiena: 300 litro ur baino gehiago pilatu zen hainbat tokitan eta bizpahiru metroko altuera lortu zuen. 27 pertsona hil ziren, gehienak Zestoan, autobusean harrapatuta. Trenbide, zubi eta tunelak birrindu zituen urak eta horren ondorioz Plazaolako eta Bidasoako trenak behin betiko itxi zituzten.

**1983, abuztuak 26-27.** Ia Euskal Herri osoari era-gin zioten uholdeok, baina Bizkaia izan zen kaltetue-na, bereziki Etxebarri eta Galdakao. 28 hildako eta lau desagertu izan ziren Bizkaian, sei hildako Araban eta bost hildako eta lau desagertu Lapurdin. Bilboko Aste Nagusi betean, urak hiru eta lau metroko altuera hartu zuen alde zaharrean eta triskantza eragin zuen hainbat auzotan; etxe ugari erabat deseginda geratu ziren. Euriak 6.000 hektarea hartu eta 1.500 milioi tona ur bota zituen. Kostaldeko herri ugari inkomuni-katurik geratu ziren, azpiegitura asko birrinduta, eta 200.000 milioi pezetako kalte ekonomikoa eragin zuten uraldiek. Ehun udalerrri baino gehiago honda-men eremu izendatu zituzten Euskal Herrian. Uhol-deei aurre egin nahian, Deustuko kanala zabaltzea erabaki zuten Bilbon.

**1988, uztailak 19.** Deba bailara (bereziki Elgoibar) eta Arabako hainbat zonalde eraso zituen. 16 hildako utzi zituen.



Irudietan, Bilbo 1983ko uholdeetan; 30 urte beteko dira abuztuak (José Luis, Joseba Ballesteros eta Tamararen argazkiak).

tikatu du Eguzkik. Garridoren arabera, sedi-mentu naturalak ezabatuz bidearen sakonera eta zabalera handitzeak ez du ezer konpon-tzen, biodibertsitatea suntsitzen du eta albo-ondorioak sortzen ditu: hala nola, draga buru-tzen den eremuetatik gora erosioa, ubidea hondoratzea eta irregulartasunak hondoan, azal freatikoa jaistera (eta ondorioz ureztatze-putzuak lehortzea), zubi eta harri-lubeten eus-karriek egonkortasuna galtzea, eta abar.

Kontuak kontu, esku-hartzeko gehienak ibaiertzetan egiten direla eta ur-ateraldien ondorioak gutxitzeko mantentze-lanak ibai-

arroetan burutzea komeniko litzatekeela gai-neratu du Garridok, “ibai-arroak artifizial-tzen direnean ondorioak ibaiak berak pairatzen ditu-eta”. Berdin iturburuekin: ez baditugu behar bezala zaintzen, sorburuko ur biziek dakartzaten elementuak pilatuz joango dira eta aurrerago, hiriguneetan esaterako, ibaiak gainezka egitea eragin dezakete.

### Urtegiak, mesedegarri ala arrisku?

Urtegiek ere badute zeresanik honetan guz-tian. Oso urtegi txikiak badira, ez dute gaita-sunik emarian eragiteko. Aldiz, urtegi handia-



LUIS JAUREGIALTZO / A.P.



Goian, Kadagoa hazita, Alonsotegin. Ur-jarioa ez eragozteko bezain zabal eta altu izan behar dute zubiek, eta zubi zahar asko arazo dira. Eskuinean, Añarbeko urtegia. Ondo kudeatuta, ibaien gainezkatzea gelditu dezakete urtegiek, baina euriari eusteko gai ez badira, benetako tranpa bihur daitezke presa azpiko herritarrentzat.

goek, Zadorrakoa edo Añarbekoa kasu, ibaien gainezkatzea txikitu eta hein batean gelditu dezakete, kudeaketa eraginkorra egin ez gero. Presari esker uraren jarioa eten eta modu kontrolatuan emari txikiagoa ateratzen uztea litzateke konponbidea, URAko kideak argitu digunez. “Baina urtegiak muga bat dauka eta ur gehiago bildu ezin duen mailara iritsiko balitz, sartzen ari den emari guztia askatu beharko luke; ondorioz, presa azpiko uholde-eremuetan azpiegiturak eraiki badira, benetako tranpa bihur daitezke lekuok”. Urtegiak euriari eusteko gai ez badira, sortzen den arazoa oso larria izan daiteke, hortik aurreikuspenen garrantzia, euri-jasak hasi aurretik urtegia behar adina hustu eta lekua egin aldera.

Gestio onaren adibide bat jarri digu Sanz de Galdeanok: joan den urtarrila-otsaileko euriteetan, Gasteiztik igarotzen den tartean Zadorrak gehienez 125 metro kubikoko emaria eraman zuen segundoko eta 2,90 metroko altuera hartu zuen. Hori lortzeko, urtegien kudeaketa funtsezkoa izan zen, bestela segundoko 375 metro kubikoko emaria eta 5,5 metroko altuera hartuko zukeen Zadorrak eta kalteak seguruenik askoz handiagoak izango ziratekeen. “Hainbat administrazio eta erakunde hartzen dute parte urtegien kudeaketari buruzko erabakietan, URAren koordinaziopean. Esperientzia, orain arte, oso ona izan da”. Kritikoagoak dira Eguzki talde ekologistan; haien hitzetan, urtegien funtzionamendua –jabetza pribatua nahiz publikoa izan– enpre-

**Barrerak jartzeagatik, abiadura handiagoz jaisten da ura eta aurrerago bortitzako egin dezake gainezka. Dragatzea ere “guztiz alferrikakoa” dela dio Jose Maria Sanz de Galdeano URAko kideak, sedimentu berriek beteko baitute hutsik geratu den lekua**

### Urumea, Kadagoa, Zadorra, Ebro...

Puntu beltz ugari ditugu Euskal Herrian. Ebrok triskantza bat baino gehiago utzi du Nafarroan –Bidasoa eta Arga ere aintzat hartzeakoak dira–; Gipuzkoan Urumea eta Oria dira arrisku gehien sor dezaketen ibaiak, Deba eta Urola ahaztu gabe;

Arabian Zadorrari begiratu behar zaio batez ere; Bizkaian Ibaizabal, Nerbioi (honek Araba ere ukitzen du), Kadagoa, Butroe eta Gobela ditugu; eta Lapurdin kontuz ibili behar gara Aturri eta Errobirekin (azken honekin baita Nafarroa Beherean ere). Orokorrean, Eguzkiko kideak gogoratu digu uholde-lautadarik ez duen eta ibai-arro euritsuak daukan edozein ibai egin dezakeela gainezka. Euskal Herrian, dakigunez, euria sarri dugu lagun eta neurri eraginkorrak hartu ezean, ezusteko desatseginak izan ditza-kegu etorkizunean. ■



JUAN CARLOS RUIZ / A.P.





# «Euskal mitologiak erakusten digu hemen emakumeak onetsiak zirela»

Sorginak, lamiak, Basajaun eta basandereak bezala, Mariren gorteko kidea izan zitekeen bera ere. Eta bere funtzioa gu, XXI. mendeko euskaldunak, gure aspaldiko mitologia ahaztuarekin harremanetan jartzea izanen zen.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

## Historia ikasi zenuen.

Bai. Betidanik gustatu zait asko historia hatxerekin, hatxerik gabe, historia handia, istorio txikiak... baina zurrumurruetan sartu gabe.

## Parisen sortua izanik, zer dela eta etorri zinen hona?

Zikoina oso zaharra egokitu zitzaidan eta horregatik, han utzi eta gero, Euskal Herrira nire kabuz etorri behar izan nuen. Paris inguruan sortu eta bertan hazi nintzen, baina nire lagun askok bezala, gaztarora iritsita handik ateratzeko beharra sentitu nuen. 23 urte nituela, urte bat hartu nuen bidaiatzeko: Britainia, Frantziako erdigunea... eta horrela Baionara iritsi arte. Hemen ezagutu nuen jendea, gizon bat, kultura desberdin bat bere hizkuntza propioa zuena... Dena gustatu zitzaidan eta gelditu egin nintzen.

## Gero Hegoaldera etorri zinen?

Eta orain berriro Iparraldera joanen naiz bizitzera laster, gaur egun lan gehiena han egiten baitut. Hanka bat Hegoaldean eta beste Iparraldean izan ditut beti. Lana, bizitokia eta dena Bidasoaren bi aldeetan daukat. Semeak jada 19 urte ditu eta orain errazago dut mugitzea.

## Euskara noiz ikasi zenuen?

Baionara iritsi bezain laster hasi nintzen. Pisua bilatu eta lana aurkitu aitzin euskara

klaseetan eman nuen izena. Argi neukan kultura bat ezagutzeko hizkuntza ezagutu behar dela. Kultura batek erabiltzen duen hizkuntza ez baduzu ezagutzen, folklorea gelditzen zara. Euskara, gainera, oso hizkuntza zaharra da eta horregatik, hitz askok karga semantiko berezia dute. Etxea adibidez. Etxea ez da "casa". Etxea euskaldunentzat bizitoki osoa da, bere inguruko baratze, lur eta haziendekin, eta bertan bizi den familia osoa. Gu etxearenak gara, ez etxea gurea.

## NORTASUN AGIRIA

**Ixabel Millet.** Parisen sortua 1958ko urtarrilaren 10ean. 23 urterekin Euskal Herrira etorri eta bertan gelditu zen, liluraturik. Hamahiru urtez frantses irakasle aritu zen teknika sortzaileetan oinarritutako metodo propioak erabiliz (olerkiak, ipuinak, antzerkia...). Ipuinen eskutik helduta ibili da ordutik. Hogeitahiru urte daramatza irakasleen formakuntzan. "Euskal ipuinak eta mitologia" eta "Ipuin klasikoak" ikastaroak ematen ditu Irale programan; EHUK antolatutako Euskalduntze eta Alfabetatze diplomaturan didaktika (sugestopedia) eta talde fenomenoak landu zituen urtetan eta UEUn hamaika ikastaro eman izan ditu. *Kanturik gabeko herria* eta *Jainko-Jainkotsek ez dakite dena* haurrentzako literatura lanak argitaratu ditu, besteak beste, eta itzulpengintzan ere aritu izan da. Baina gauza ororen gainera Ixabel ipuin kontalaria da.









“Eguzkiloreak gauzez babesten gaitu jeinu gaiztoen erasoetatik, eguzkiak egunez bezala. Argia, beroa eta babesa ematen dizkigu Amalurrak haren bidez. Eguzkia eta Ilargia Amalurraren alabak dira. Lehenbizi Ilargia sortu zen eta gero Eguzkia. Alabak dira, baina hala ere, *amandreak* (amonak, amatxiak) deitzen diegu, betiereko zikloa osatuz”.

### Irakaskuntzan aritu zara hasieratik?

Frantsesa helduei irakastea izan zen nire lehen lanbidea. Donostian horretan ari nintzela, poliki-poliki teknika sortzaileak sartzen hasi nintzen: kantak, olerkiak, marrazkiak... Naturalki, horrela ateratzen zitzaidalako, eta sugestopedian espezializatu nintzen.

### Zer da sugestopedia?

Alderdi afektiboa lantzen duen ikasteko modu bat da. Metodo bat egokitu eta ondoren neronek beste bat sortu nuen. Gerora AEK-ko irakasleekin aritu nintzen lanean sugestopedia ematen EHUko Euskalduntze eta Alfabetatze Diplomaturan, glotodidaktika arloan, zortzi urtez. Eta horretan nenbilela ipuinak kontatzeko aukera sortu zitzaidan. Modu honetara joan nintzen gero eta gehiago sartzen mundu horretan. Ipuin klasikoak sakonki ikertu eta kontatzen nituen eta horrek mitologiara eramanez ninduen. Beste mundu bat aurkitu nuen.

### Eta mitologia zer da?

Bada, munduaren errepresentazioa eta munduko indarren arteko harremanak

adierazten dituen sistema. Mitologia bat lehen erlijio bat izan zen. Alde horretatik, kultura bat zertan datzan ezagutzeko modua da mitologia. Gaur egun egiten ditugun munduaren errepresentazioak bi motatakoak dira: edo erabat arrazional eta fisikoa, edo guztiz espirituala. Euskal mitologian halako bereizketarik ez zen gertatzen erlijio naturalista zelako. Lurrean zeudenen arteko harremana zegoen, baina baita goian zeudenekin ere. Dena lotua agertzen zaigu eta nik uste dut lotura hori dela horrenbeste gustatzen zaiguna. Geuk ezarri dugu dikotomia hori, beste kontzeptu askorekin ere egin dugun bezala: femenino/maskulinoa, adibidez.

### Mitologian islatzen den mundua begiratzeko modu horretatik zerbait gelditzen da gaur egun?

Gizarte egituran ezer gutxi, baina izaeran nik uste dut baietz. Azalean denok gara berdinak, denok jantzen gara berdin, jaten dugu berdin... baina hori da orokorrean eta telebistak eta komunikabideek bultzatzen



## UEU eta Hik Hasin ikastaroak

Uztailaren 10 eta 11n Baionan, Ixabel Milletek “Euskal Mitologia: hurbildu antzinako euskal mundura” izeneko ikastaroa eskainiko du UEUn. “Ikastaro honen xedea euskal mitologiaren altxorra ezagutaraztea da. Pertsonaia nagusiez eta haien arteko harremanaz eta, batez ere, euskal mitologiaren antolamenduz mintzatuko gara, gure arbasoen mundura hurbilduz. Ikusiko ditu-

gu Basajaun eta basandereak, sorginak, Mari, Amalur, Inguma, lamiak, Gaueko eta Gauargi eta bakoitzak zer irudikatzen duen. Horretarako irakurri behar da eliza katolikoak jarri duen mintzaren azpian, lehenagotik zegoena estali egin baitzuten ipuinak erabiliz, gaur egun telebistarekin egiten duten bezala”.

Hik Hasik eta EHUko Hezkuntzaren Historia eta Teoria fakulta-

teak antolatuta, uztailaren 3an, 4an eta 5ean XIV. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak egingo dira eta bertan Ixabel Milletek Kamishibai ikastaroa eskainiko du. “Japoniatik ekarritako teknika bat da non ipuinak antzetzoki txiki batekin kontatzen diren. Irakaslearentzat kamishibaia zeharkako bitarteko interesgarria da, eta ikasleentzat sortzaile izateko aukera izan daiteke”.

dutena, baina horretaz gain, benetako bizitza dago, erreala, eta nik uste dut hor herriek beren izaera mantentzen dutela. Telebistak lilura handi moduko bat sortzen du eta horretan murgilduta bizi gara, baina gero gure ingurura begiratu eta gertuko errealitatea ikusten dugu. Aita Barandiaranek baserri eta herri txikietan gelditzen ziren sinesmen eta ohiturak bildu zituen joan den mendean. Gerora beste batzuek egin dituzte ikerketa sakonak eta orain hori dena ari da gorputzen.

**Euskaldunon kultura matriarkala izan dela diote.**

Matriarkatua ez da izan, emakumeak eginkizun inportantea izanagatik ez zuelako gizonena baino garrantzitsuagoa. Biak parekoak ziren. Etxearen martxa eramateko hartu beharreko erabakiak modu kolektiboan hartzen ziren eta beti bikoteak izaten ziren horren arduradunak, gazte nahiz zahar, baina beti gizon-emakumeak.

**Honi matrialismoa deitzen diozu. Euskal Herriko berezitasuna izan da hau?**

Europako beste inon ez da honen arrasto handirik ikusten. Hego Amerikan edo Afrikan bai, baina Europan oso aztarna gutxi dugu, Euskal Herrian gorde denaz gain. Gizarte batek era desberdinetara adierazten ditu bere baloreak. Joan den mendean, adibidez, gizon eta emakumeen soldaten arteko desberdintasunari buruzko ikerketa lan bat egin zuten. Jakin nahi zuten zergatik, postu berean, emakumeek normalean gutxiago kobratzen duten eta argi ikusi zuten lanpostu batzuetan gutxiago kobratzen zela, oro har, emakumeak sartuz geroztik. Idazkari edo irakasle lanetan, adibidez. Bai lanaren funtzioa bai soldata behera joan ziren.

### Onespen handiagoa

**“Euskal mitologiak erakusten diguna da hemen emakumeak onetsiak zirela. Ez zen aparteko deus, beren tokia zuten besterik ez, baina gaur egungo gizartearen dugun onespena baino askoz ere handiagoa zuten. Haien lanak sua mantentzea eta hildakoen ardura ziren, besteak beste”.**

**Euskal mitologian, Mari nor da?**

Bizitzaren indarra. Makrokosmosaren ordezkaria eta munduaren arima. Goi mailan dago baina egunerokotasunean laguntzen digu. Goian da, baina mendiaren goi aldean, lurrean eta eskura, ez zeruan. Posiblea da berarekin hitz egitea, komunikatzea, aholkuak eta laguntza eskatzea. Pertsonaren alderdi kontzeptuala da, ideien mundua, buruan dagoena.

**Eta Amalurra?**

Lurra bera da. Gorputz fisikoa. Mariren osagarria. Makrokosmosean Amalurra eta Mari zirenak, mikrokosmosean, egunerokoan, etxea eta etxeoandrea ziren. Etxekoandrea indar femeninoa da. Oso indartsua euskal mitologia preindoeuropearrean. Gero arioak etorri ziren eta haiekin batera eredu patriarkalak, eta gero eliza katolikoa heldu zen, are patriarkalagoa dena. Azkenaurreko kanpoldarraldia, egungo globalizazioa baino lehen, industrializazioa izan zen. Harekin batera mozketa handia gertatu zen aurreko kulturarekiko: ordura arte numenek eta Amalurrak egurra, elikagaiak eta ura ematen zizki-



**CAMPOS**

1921-ETIK, CAMPOS-EK  
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU  
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI  
ESKER, HEGALUZERIK ONENA BILATZEN  
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU  
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: [www.clubcampos.com](http://www.clubcampos.com)



## AZKEN HITZA

### Erantzunak

“Herriaren kultura ikusteko lente batzuk ematen dizkigu mitologiak. Guretzat zaila da gauden kultura eta mundua ikustea, barruan gaudelako. Mitologiak ematen digu aukera beste mundu bat imajinatze-ko. Ez dut esan nahi ikusmolde hori gaur egungoa baino hobea zenik, baina bai balio digula orain duguna beste modu batez begiratzeko eta zertan sinesten dugun ikusteko. Gaur egun zientzia da gure mundua ulertzeko erantzunak ematen dizkiguna: norbait gaixotzen denean, eta arrazoa aurkitzen ez dutenean, birus bat izanen dela esaten digute adibidez, eta lehen, euskal munduan, Inguma zela esaten zuten. Inguma behintzat, izen politagoa zen”.



guten eta guk eskertu egiten genien hori. Industrializazioarekin natura ustiatzeko ideia etorri zen, dena libre hartzeko kontuan hartu gabe gauza horiek ez zirela gureak, guri emandakoak baizik.

Gaur egun emakumeok berdin jarraitzen dugu etxea eta familiaren ardura gure gain hartzen, neurri handi batean.

Baina kontua ez da soilik egin ala ez egin, baizik eta hori gizartean nola dagoen ikusita. Hor dago koska. Hori da feminismoa egiten saiatzen dena: beste era batez ikustea emakumeak egiten duena, baloratzea. Haurrak zaintzea ez da bigarren mailako zerbait, baina gizarteak hori bigarren mailara eraman du, emakumeak egiten dituen gauza guztietan egin duen bezala.

Beraz, gerora etorritako patriarkalismoarekin talka egin zuen hemengo ikusmoldeak?

Arioak etorri zirenean hemengo kultura itxi, gorde egin zen. Ipuinetan hori oso garbi ikusten da. Euskararekin gorde zen

### Etxea

**“Etxea biziki garrantzitsua da euskaldunarentzat. Bere mikrokosmosa da. Horregatik etxea saltzea zerbait dramatiko izan da beti. Ikusgarria da hemen zenbat diru gastatzen duen jendeak sukaldeetan. Elkarteetan, adibidez, izugarritzko sukaldeak jartzen dira, eta hori toki femeninoa da. Hau indar femeninoarengatik da, batez ere emakumeengan dagoena, baina baita gizonengan ere”.**

kultura. Euskararen bitartez babestu zuten kultura eta euskara bera ere kulturari esker babestu zen. Biak batera gorde ziren barrura, sukalderaino, eta han urtetan egon dira. Sutondoa leku femeninoa da, eta han gorde zen dena. Ipuinetan garbi ikusten da indar maskulinoak agertzen direnean, eliza edo industrializazioa, adibidez, Mari kobazuloe-tan gorde egiten dela. Indar femeninoa horrelakoa da, ez du bilatzen konfrontazioa, baizik eta gorde, zaindu eta ezkutatu egiten da. Sua bezalakoa zen: urtean behin piztu baina gauero gorde egiten zen errautsaz estalita.

**Mari gaur egun gordeta dago?**

Nola ez? Ez da desagertu.

**Mariren beharra dugu gaur egun?**

Zientzia mundu fisiko eta materialari erantzuten saiatzen da, eta hala ere badira gauzak azaldu ezin dituenak. Erljioak esaten zuena orain zientziaren ahotan jartzen dugu eta honek esaten badu materiala denaz harago ez dela ezer existitzen, zerbait falta zaigu: bizitzaren magia edo demostratu ezin den hori. Bizitza bera.

Egun ikusten ari gara antzinako ereduak erortzen ari direla. Frantziako telebistako eztabaida saioak ikustea dut gustuko. Orain krisia dela-eta ekonomista eta politikari asko joaten dira soluziobideen bila, baina lehen filosofoak maiz mintzatzen ziren eta esaten zuten zibilizazio hau amaitzen ari dela, garai batean erromatarrena eta beste asko eta asko bukatu ziren bezala. Hau amaitzen ari da beste zerbait sortzen ari delako. Batzuk Ekialdeko erlijio eta pentsamoldeetan bilatzen ari diren erantzunak, euskal kulturak eta mitologiak eskaintzen dituztela uste dut nik. ■





# ATXEGA JAUREGIA

*jatetxea*

ATXEGA  
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

[www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)



BERANDUEGI

# Gelditu makinak, benetan

Beti txantxetan ari denari nola sinetsi, behingoagatik serio mintzatzea egokitu zaionean? Bada, ez da marketin kanpaina, egia baizik: aste honetan sareratu dugun 100. saioa izango da *Beranduegi* web telebistaren azkena. Eta hauxe, gure agurra.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / UNAI BREA |

Argazkia: Dani Blanco

BERANDUEGI gentozela esan genuen, 2011ko urtarrilean, *Beranduegi*ren lehen saioa eman genuenean. Orain goizegi goazela uste du zenbaitek, eta hori da, zinez, jaso genezakeen laudoriorik ederrena. Ez da erraza lerro hauek idaztea, hunkidurak ez baitigu uzten...

–Et, et, et. Sentiberak jarri behar al dugu orain?

–Ez didazu utziko?

–Ez dakit, ez zait iruditzen hau denik lekua.

–Jo, nik barrenak askatzeko premia daukat, joan den astean Eñaut Elorrietak egin zuen bezala.

–Baina zu kazetaria zara. Ez rock izarra.

–Kazetariak, rock izarrak... Non dago alde? Sare sozialen garai hauetan fama asko *horizontalizatu* da.

–Atera da ditzosozko horizontaltasuna. Durangoko Azokaren ereduari buruzko eztabaida batean sartu aurretik, nik segituko dut artikulua idazten.

Ez da erraza lerro hauek idaztea, batez ere artikulua duela bi ordu makinetan egon behar zuela kontuan izanda –ez diezazutela ziririk sartu: egiazko bizitzan “gelditu makinak!” oihukatu, eta makinak, makinistak eta handik pasatzen zen erretiratu batek aurpegi-ra barre egiten dizute, konprobatuta dauka—. Erredaktore buruaren hatsa lepoan sentitzeak ez digu laguntzen, baina tira, azken orduan, presaka eta asko pentsatu gabe idatzi ditugu *Beranduegi*ko gidoi gehienak ere.

–Zer esan nahi duzu horrekin, gidoiak txarrak izan direla?

–Esan nahi dut ez digutela Pulitzer bat emango.

–Aizu, Rikardo Arregi saria jaso genuen!

–Tira, hori edonork irabazten du.

–Ez didazu esango ilusioa egin ez zizunik.

–Ados, onartuko dut: Kultura sailburuari bi musu eman ondoren puztu egin nintzen.



Axier Lopez, Jon Torner Zabala, Unai Brea eta Gorka Bereziartua Mitxelena, *Beranduegi* saioaren errudunetako batzuk.



–Nik uste, ondorengo pintxo-jatean puztu zinela batez ere. Ze etiketa gutxi...

**Astapenak (bai, hatxe gabe)**

Ez dezagun haria gal. Duela bi urte eta erdiko goiz batez, Gorka Bereziartua buruan min handia eta ahoan pattar zaporea zuela esnatu zen; konturatu orduko, kamera baten aurrean zegoen, jaka jantzita. Protesta egiten saiatu zen, baina alferrik. Are okerrago, zigor modura gorbata jantziarazi zioten.

–Izan ere, Gorka, nolatan engainatu zintuzten *Beranduegi* aurkezteko?

–Soldata igoko zidatela hitz eman zidaten.

–Eta?

–Gaur arte.

–A. Ba niri...

[ARGIAko zentsura batzordeak elkarrizketa honen hurrengo pasarteaz ezabatu du. Gure erredaktoreek beren miseriak publikoki haizatzeko tentaziorik berriz izan ez dezaten, Eusko Jaurilaritza, Nafarroan geratzen den Foru zera horri eta Espagnac-en limoizko poloari dirulaguntza gehiago eskatzen dizkiegu].

–Eta horrela hasi nintzen, ideia handirik eduki gabe, baina tira, pixkanaka tamaina hartzen joan nintzaion eta gustura. Zu etorri arte.

–Jo, gogoratzen hasieran ze gaizki moldatzen ginen elkarrekin?

–Hasieran?

–Nork esan behar zizun nireganako sentitzen zenuen bekaitza laguntasun sano bihurtuko zitzaizunik?

–Ez, nork esan dizu zuri.

**Tren bat arrakastara... edo**

Aurkezle bikoteak elkarri zaplaztekoka ari zteari utzi ziolarik, programak bestelako mar-

txa hartu zuen. Esan liteke ETAk armak uztearekin batera egindako 33. saioak eman ziela ospea.

–Ospea?

Jendea saioaz hitz egiten hasi zen barra-barra. Eta bakarren batek, *ondo* ere hitz egin zuen.

–Ba, badakizu? Garai hartako albistegiak erdipurdikoak iruditzen zaizkit orain.

–Bai, egia esan, asko hobetu genuen aurkezle ikastaroa eman zigutenean.

–Mila esker, Julian Iantzi.

Programak gora egin zuen, bai audientzietan, bai kalitatean. Behin saio on bat egitea lortu zuten, eta erronka handiagoen unea zela pentsatu zuten: senide ez zirenek ere Beranduegi ikustea jarri zuten helburu. Horretarako, mota guztietako arretaditze taktikak erabili zituzten: Durangoko Azokako stand batean grabatu zuten,

Pirritx eta Porrotx handik zebiltzala pentsatuta hurbildu ziren nerabeen aurrean; biluztu egin ziren –gerritik behera eta kastitatez betiere–; eta lip-dub bat egiteraino galdu zuten beren buruekiko errespetua.

Dena ondo zihoan beraz. 50 saio, 60, 80, 90, 99...

–Eta 100.arekin akabo!

–Baina irakurleei azaldu beharko diezu zergatik erabaki dugun bukatzea, ezta?

–Em... Ea. Konparazio batekin esplikatu dut, ados?

–Bai.

–Hau ez da *Goenkale*.

–Nik ez nuen hobeto esango.

–Bide batez, zu nor zara, Unai ala Gorka?

–Ba... dagoeneko nik ere ez dakit. ■

**Dena ondo zihoan beraz. 50 saio, 60, 80, 90, 99...**

**–Eta 100.arekin akabo!**

**–Baina irakurleei azaldu beharko diezu zergatik erabaki dugun bukatzea, ezta?**

**–Konparazio batekin esplikatu dut: gu ez gara *Goenkale*.**



Bakailoa

**Bartolo**  
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38  
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279  
www.casabartoloetxea.com





DANI BLANCO

**Mikel Zurbano**



EHUKO  
IRAKASLEA,  
EKONOMIALARIA

## Ipar Atlantikoko merkatu bakarrerantz

ISILPEKO negoziazioetan bideratzen ari dira Amerikako Estatu Batuen (AEB) eta Europar Batasunaren (EB) artean merkataritza eremu liberalizatua eraikitzeko elkarriketak. Prozedura demokratikoa alboratuta ari dira Europar urratsak ematen. Izan ere, aurtengo otsailaren zortzian Europako Kontseilua bat etorri zen AEBen eta EBren arteko merkataritza akordio globala egiteko asmoz Legebiltzarraren ahotsa entzun gabe. Bost egun geroago bi lurraldeen arteko merkataritza eta inbertsioaren arloko liberalizazioa bizkortzea erabaki zuten Washington hirian. Ipar Atlantikoko merkataritza eta inbertsiorako elkarkidetza akordioa bideratze aldera, ekainaren erdian onetsi du Europako Kontseiluak Batzordea negoziazioetan modu ofizialean hasteko agindua. Bi eremu ekonomiko erraldoi hauen arteko merkataritza jarduera guztietan liberalizatzea eta Ipar Atlantikoan merkatu bakarra sortzea da helburua funtsean.

Azkenaldian Munduko Merkataritza Erakundearen negoziazio multilateralak etenda daude, Doha hiriburuko (Qatar) txandak aurreko hamarkadan porrota eza-gutu zuenetik. Merkataritzaren liberalizazio multilateralala oztopatuta egonik merkatuak zabaltzeko bestelako ahalegin gehigarriak egin beharrean aurkitzen dira

ritza liberalizaziorako Ipar Atlantikoko merkatu eremua eraikitzeko ahaleginetan.

Elkarkidetza akordioa berrestekotan AEBen eta EBren arteko arantzelak eta aduana eskubideak bertan behera geratuko dira bi eremuen arteko ondasun eta zerbitzuen salerosketa liberalizatuta. Merkatu bakarra sortuko litzateke eta, ondorioz, lan eta ingurugiro betekizun indartsuagoak dituzten Europako salkariak AEBetako betekizun lausoagoak eta, beraz, produkzio kostu apalagoak dituzten gaiekin lehiatu beharko dira. Europar ingurugiro eta giza *dumpingari* ateak zabaltzeko zirrikitu gehigarria litzateke, inondik ere. Europako Batzordeak berak idatzitako txosten batean horixe aurreikusten du, akordioak metalaren sektoreko jarduera galera esanguratsua eragingo lukeela onartzen duenean. Areago, akordioak herrialde partaideen araugintza eta legedia ere ukituko litzuzke, izan ere, merkaturako sarbidea errazte aldera AEBk eta EBk beraien araugintzaren konbergentzia hobesten du, arau gogorrenak merkataritza librearen aurkakoak bezala ikusten baititu. Gaur egun, AEBek nazioarteko zuzenbide esparru nagusietatik kanpo aurkitzen da kultura, lan eta ingurugiro gaietan. AEBek Lanaren Nazioarteko Erakundeak lan eskubideei buruzko konbentzio garrantzitsuak ez dituzte sinatzen, ez dute klima aldaketari buruzko Kyotoko protokoloa aplikatzen, ez dute izenpetzen kultur aniztasunaren inguruko UNESCOren konbentzioa ezta Europako herrialdeek sinatutako bestelako konpromiso batzuk ere.

Munduko balantza geoekonomikoa aldatzen ari den honetan krisi finantzarioak eragindako potentzia ekonomiko zaharrek ekimena hartzeko ahalegina litzateke elkarkidetza akordioa, merkatu bakar berriak munduko produkzioaren erdia ordezkatzeko baidake. Ekonomia emerjentei eta, batez ere, Txinari aurre egiteko diseinatu da hitzarmena. Haatik, akordioak are nekezagoa bihur lezake krisiarekin narriatzen ari den Europako oinarri soziala eta ongizatea mantentzea, merkatu lehia irekiak babes sozialak eta ingurugiro irizpideak behin betiko lehertzeko arrisku bizia dakar eta. ■

*Ipar Atlantikoko merkataritza eta inbertsiorako elkarkidetza akordioa bideratze aldera, ekainaren erdian onetsi du Europako Kontseiluak Batzordea negoziazioetan modu ofizialean hasteko agindua*

potentzia ekonomikoak, areago atzeraldi handiak merkatuak uzkuritu dituenen. AEBak aldebiko akordioen bide alternatibo hau jorratzen ari dira azkenaldian. Pazifikoko arroan merkatua zabaltzeko bidea irekitzen ari dira, baina Ameriketako liberalizazio asmoa –ALCA egitasmoa– atzean geratu zen Hego Amerikako ezkerreko gobernuen adostasun ezagatik. Tes-tuinguru honetan ari dira AEBak merkata-







Hamabi alkatetik  
errefusatzetik dituzte  
<denentzako ezkontzak>

Zinezko  
duzapez-pikuak



**Karlos Gorrindo Etxeandia**

EUSKARA TEKNIKARIA ◆



INIGO AZKONA

# Agur

EUSKARA HIRUZPALAU belaunaldietarako ziurtatuta dagoela esan berri du HPSko arduradun Patxi Bastarrika jaunak. Edurne Brouardek, ostera, badirela Euskal Herrian eremuak, non euskara desagertzeaz dagoen. Gauza bera diote biek, epe kontua baino ez da. Euskara desagertu egingo da. Euskara berez hilko da, ez du inork erailko. Edo zehatzago esanda, guk geuk hilko dugu, euskaldunok, alegia.

Euskal Herrian, oro har, euskararen erabilerak behera egin du. Kanean eta administrazioan. Hemen langile euskaldunek gaztelania hobesten dute baldintza ez formaletan hezur-gabekoari eragiteko. Kanean, transmisioan, erabileran eta elikaduran ez da asmatzen ukendu magikorik geureari eusteko. Eta, ondorioz, azkenaldiotan makal dabilen hizkuntzak agur esango digula argi dago, itzulerarik ez duen eremura ospa eginda. Edo gune birtual batean ezkutatuko da, kristauak katakunbetan legetxe, eta han bertan baino ez da erabiliko. Era proskritoan biziko da, eta munduak gutxietsia. Eremu espekulatiboan mugituko da eta nostalgiko gutxi batzuen oraleku melankolikoa bihurtuta ibiliko da, txakur alderraiaren gisa, patu hori merezi izateko zer egin duen (zer egin ez duen) buruan jira eta bira dabilkiola. Baina orain-

*Beldurra diot, bada, Euskal Herri independenteari, politikoki eta administratiboki bat izango garen sasoiari, bizkar gainean dugun motxilaren barruko kargaz desjabetuko garelako arian-arian*

dik eutsi egingo dio hizkuntza bizia izateari, aurrez aurre nork zapaldu baduelako, eta berezko borroka kontzientzia gailenduko zaio, izateari eusteko. Bizirik jarraitzeko aurrean erdarak behar dituelako euskarak, haiek barik gure izatearen kontzientzia ere galduko genuelako. Hau da, gu bagara izan, aurrean erdara dugulako ez garelako esaten baitigute. Konturatzen ez garelako gu izan bagarela berez, inork garen edo ez garen esaten ibili beharrik gabe.

Eta kontzientziarik, militantziarik eta motibaziorik gabe euskara ez da noranahiko inoiz bilakatuko. Beldurra diot, bada, Euskal Herri independenteari, politikoki eta administratiboki bat izango garen sasoiari, bizkar gainean dugun motxilaren barruko kargaz desjabetuko garelako arian-arian. Eta orduan, ohiturak, barruko senak edo gogoak agindutakoa baino ez baitugu egingo eta, gainera, bihotz zimikorik izan barik, erdarara lerratuko gara denok, hainbeste arazo, borroka eta emozio eragin digun hizkuntza ez delako aurrerantzean kaltegarri izango gure osasun mental eta sentimentalerako, eta kontzientzia bakean eta lasaitasunean bizi ahal izango delako betiko, erdara ederrean mintzatu eta biziko garenez gero. ■



DANI BLANCO



**Itxaro Borda**

◆  
IDAZLEA

# Odolezko marrubiak

GREZIATIK etorri berriak ukitu gintuen: hogeita hamar bengalatar larriki zauritu zituzten marrubi ekoizle latifundioaren sustenguz osatu *bravoi* edo *pistoleroi* talde armatuetako kideek Peloponesoko Nea Manolada herrian. Beraien errua? Sei hilabeteotan ordainduak izan gabe negutegietan errendaturik joanak ziren zor zitzaientzaren eskatzera. Aterpe doietan metatzen dira migranteak, hamahiru oren baino gehiago lan eginez egun oroz, hitzemanak zaizkien 20 euroak amets direla askotan! Indioek, pakistandarrek, Afganistan edo Iraketik klandestinoki sartuek Tirana aldeira itzulitako behialako albaniar oldeak

ordezkatu dituzte. Troikalanean behin-goz helburuetarik bat lortua da: Europako gune batean lanaren gastua hutsaren hurrenera apaltzea... eta pozik ez dagoen esklaboa tiroz isilaraztea!

Barrosok eta Merkelek kudeatu Europa osoa bihurtuko den gose-eremuaren irudia dakarkigu Greziak. Pedro Olallaren bloga zein Petros Markarisen nobelak irakurtzen ditugu eta Teo Angelopoulosen filmak ikusten, marrasma horri ihardokitzeko baliabidea kultura suerta daitekeen ustetan —potentziala darabilt, zer gerta ere!—. ■





GAIZKA IROZ



**Ixabel Etxeberria**

◆ URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

## Espagn-ac

EMAZTE AUSARTA, politikari profesionala, estatuko politikaria, bere herrialdean inplikatu nahi duena. Frédérique Espagnac du izena, azken urte hauetan tokiko arazoez gogoetatu duen arduradun politikoa, Gobernuan entzuna dena. Eskandaluaren erdian. Orain arte beste emazte bat jarraitzen ohituta ginen: MAM (Michèlle Alliot-Marie); bakar batzuen aldekoa. Abertzaleekiko arriskutsua, Jon Anzarekin gertatu zenaz asko dakiena eta Euskal Herria bost axola zaiona betidanik.

Espagnac andereari beste noblezia bat ikusi zaio politika egiteko unean, bere alderdiari buruzko azalpen kritikoak entzun zaizkio. Baina, politika aitzina doa eta politikak ez du une hone-tan bat egiten ariketa demokratikoarekin. Hain zuzen, Kolektibitatearen aldeko (Lurralde Elkargoaren) mugimenduaren interes nagusia ariketa politikoa baita, ariketa demokratikoa, interes komunaren aldeko lana, urteetako lana. Politika ez dago horretan gaur egun, aginteak gagnetik datoz eta betetzen dira. Gaur egun sekula baino gehiago, aski da Herri Elkargoen antolaketak nola eginak izan ziren begiratzeari horren ulertzeko.

Parisen emendakina aurkeztu da eta bozkaturata dago jada. Ikusgarria da batzuetan zein erraza den erabaki politiko baten hartzea. Noski, erabaki honek ez du Gobernu arriskutan jartzen, hori da garrantzitsua François Hollanderen Gobernuarentzat. Bestalde, horrek pizar politikoak eskaini dizkio alderdi sozialistari hurrengo hauteskundeen prestatzeko. Dena garbi! Sinesten al

dugu alderdi sozialistak eta UMPk beren interes politiko propioak ahantzi dituztela adostasun politiko batera heldu direlako? Adostasun teorikoa dena den.

Politika erreal honek ez du inor pozten, baina ez dut uste tokiko politikariak, Poloa delakoa martxan ematen bada kanpo geldituko direnik!

*Politika erreal honek ez du inor pozten, baina ez dut uste tokiko politikariak, Poloa delakoa martxan ematen bada kanpo geldituko direnik!*

Lurralde Kolektibitatearen alde lanean jarraitu behar da, baita bake prozesuaren alde ere, horretan agian *Espagn-ac* andereak eragiten lagundu dezake, inguruan dituen *frantses-ac* oso erreprezio zaleak badira ere. Gure erronkak anitzak baitira eta denen laguntza beharrezkoa izango da, baita politikari pragmatikoenena ere.

Lurralde Kolektibitatea aurrean dugu oraindik, Independentzia ere bai, gure borroka ez dira bukatuak, gure ingurua ezagutzen dugu eta esperantza ez dugu galtzen. Gure bidea, guk eginen dugu, ez gaituzte beti lagunduko. Frantziak ez ditu oraindik ez Polinesia, ez Kanak askatu. Hemen ere ez digute oparirik eginen. Dena den, oztopo eta politikakeria asko izanen diren arren, guztien gagnetik jarraituko dugu. ■



**BERTSO BERRIAK**

**Odei Barroso Gomila**



DANI BLANCO

**Doinua:**

Harrotasunik bada.



## Ihesaldiaren arnasa

Harrotasunik bada jarrera xumean, bazterrekoa ezar dezagun gunean, eta mintzatuko da berdintasunean hitza libreki hartzen duen egunean. Unean, unean, etorkizunean... zaila baita sentitzen askatasunean zure etxea zein den ez dakizunean. (bis)

Herritarra deusezten duen gizartearen zerbait galdu ohi dugu zerbait ukatean. Erakutsi digute maitasun betean, nola argia sortzen ahal den itzalpean. Ustezko bakean gauden bitartean, ainitz dabil ihesi loturik katean barroterik ez duen kartzela batean. (bis)

Zer den etxean arrotz sentitzearena edo bizi beharra munduan barrena. Denboraren joanak hau da dakarrena: bukaeran ikusten dugu hastapena. Orduan zuzena badugu ordena bada kolektibo bat entzun behar dena, maitatze hutsagatik sufritu duena. (bis) ■

Patxi Zabaleta

◆ ARALARREKO KOORDINATZAILE NAGUSIA



DANI BLANCO

## Nafarroa, euskal lurraldetasunaren gakoa

ZAZPIAK BAT eta “Laurak bat” izan ziren abertzale-  
tasunak lurraldetasuna aldarrikatzeko erabilitako  
lelo historikoak. “Hirurak bat” proposamena ere  
erabili izan da zentzu taktiko batean. Lelo haiek,  
ordea, aspaldi zaharkituak gelditu zirela ukatzerik  
ez dago, inoiz bideragarritasunik eduki baldin bazu-  
ten; besteak beste, Iparraldeko “probintziak” histo-  
riako oroitzapena baizik ez baitira eta Hegoaldean  
lauretatik has litekeen abiapunturik ez dagoelako.  
Gaur egun, Hegoaldean bi erkidego autonomiko  
daukagu eta Iparraldean Lurralde Elkargoaren alda-  
rrikapena da kezka nagusi. Hor dago lurraldetasu-  
naren abiagunea. Izan ere, inor dagoen tokitik bes-  
terik ez liteke abia.

Lurraldetasuna, beste edozein helburu politiko  
bezala, soilik bide eta babes demokratiko zehatzetik  
lor litekeen xedea da; are gehiago, XXI. mendean  
eta Euskal Herria dagoen kokagune geografiko-

erabaki eskubidea eskuratzeaz gainera, erabaki  
esparru bezala aintzat hartua eta aitortua izatea.  
Estatuak Nafarroari ipinia dio “espainolismoaren”  
azken trintxera edo muga izateko zeregina eta hori-  
xe da “Navarrismoa” deitutakoaren izateko arrazoi  
bakarra, UPNko fundatzaile Jesus Aizpunek esan  
ohi zuen bezala. Xede maltzur hori urratzeko bide  
bakarra da Nafarroa erabaki esparru bezala aitor-  
tzea, bertako gizartearen agindu demokratikoa  
onartuz. Abertzaleon betekizun demokratikoa da  
lurraldetasun diakronikoa edo abiadura anitzekoa  
onartzea.

Lurraldetasuna izan da beti ETArean eta Estatu-  
aren arteko elkarriketa eta negoziaketa ahaleginetan  
oztopo nagusia. Arnaldo Otegiaren adierazpen libu-  
ruko hitzetan argi eta garbi ageri da adibidea:  
“Nafarroa ez da arazoaren gakoa, baizik aterabide-  
aren giltzarria”. Edo “Nafarroari dagokion edozein  
aldaketa politikok nafarren ones-  
pen zehatza beharko luke”. Baina  
Loiolan ez zegoen Nafarroako  
ordezkaririk eta onartu beharra  
dago Migel Sanzen erantzun  
harrokoak zirrara sakona lortu  
zuela Nafarroako gizartean:  
“Nafarroa ez dago salgai”.

“Navarrismoaren” sena eskubi-  
de historikoen edo foruen goraipa-  
men mitikoan dago, antzinako  
abertzaletasunarena bezala. Baina  
egun, XXI. mendean, eskubide  
historikoen gaurkotze demokrati-  
koa ezin daiteke erabaki eskubi-  
dearen gauzatzea bezala baizik uler.

Abertzaletasun  
guztiak autodeterminazioa edo erabaki eskubidea  
defendatzen du gaur egun, baina “Navarrismoak”  
ez eta ezinezkoa zaio, besteak beste, horrekin  
Espainiako trintxera ezkutua izatez utzi beharko  
lukeelako.

Beraz, Nafarroako aldaketa politikoan hasiko da  
lurraldetasun bidaia eta horretarako ezker abertzale  
osoak zabaldu egin behar du NABAik  
2007an eskuratutako emaitzak gaintuz.  
François Hollandek ez zituen Frantziako  
hauteskundeak irabaziko aurretiko pri-  
marioirik gabe. ■

*Gakoa da Euskal Herriak ez daukala gaur gaurkoz  
erakunde orokorrik, baldin eta hizkuntzaren arloan  
Euskaltzaindia ez bada. Nola gauzatu orduan,  
demokratikoki lurraldetasun aldarrikapena  
Euskal Herrian? Nondik abiatu?*

*Hiru esparru politiko autonomikoak hiru erabaki  
esparru direla onartzetik; hori da abiapuntua eta hori  
da bidea. Hiru hizkuntza, hiru abiadura eta agian,  
hiru gizarte dituen euskaldungoaren  
herriaz mintzatu beharko genuke*

politikoan. Gakoa da Euskal Herriak ez daukala  
gaur gaurkoz erakunde orokorrik, baldin eta hiz-  
kuntzaren arloan Euskaltzaindia ez bada. Nola gau-  
zatu orduan, demokratikoki lurraldetasun aldarrika-  
pena Euskal Herrian? Nondik abiatu? Hiru esparru  
politiko autonomikoak hiru erabaki esparru direla  
onartzetik; hori da abiapuntua eta hori da bidea.  
Hiru hizkuntza, hiru abiadura eta agian, hiru gizarte  
dituen euskaldungoaren herriaz mintzatu beharko  
genuke.

Iparraldearen erronka Lurralde Elkargoa da.  
Euskal Erkidego Autonomoarena erabaki eskubi-  
dea jasotzen duen estatusa lortzea. Nafarroarena





ERDIKO KAIERA

IÑAKI SALVADOR

EUSKADIKO MUSIKARI ELKARTEA

# «Internet zoragarria da baina ezin du beste guztiaren ordezeko izan»



Eskarmentu handiko musikari eta konposatzailea da Iñaki Salvador. Mikel Laboaren ondoan irudikatzen badugu ere, eta gehienetan pianoaren atzean aritzen bada ere, ikuskizun askotako musikaren sortzailea ere bada. Baita musika irakaslea ere. Azken hilabeteotan Euskadiko Musikari Elkartean buru-belarri ari da.

Testua eta argazkiak:

| IKER BARANDIARAN |

15 urte pasata berpiztu duzue Euskadiko Musikarien Elkartea. Nolakoa izan zen elkartearen iraganeko esperientzia?

Elkarteak 1995 eta 2002 artean iraun zuen, 120 profesional inguru batu ginen eta hasieran jarritako helburuak erabat bete zituen: erakundearen aurrean solaskide izan ginen, bazkideen lan artistikoa zabaltzeko lana egin

genuen, eta hauei hainbat zerbitzu eskaini: kontratazioari lotutako lege aholkularitza, arazo larrietan bitartekaritza...

Musikariok orain lehen baino premia handiagoak dituzue?

Orain lehen bezala, beharrezkoa da elkartea izatea, baina krisi ekonomikoak musikarien



egoera kaskarra areagotu du. Berez lehengo eta oraingo erronkak antzekoak dira. Gure sektorea elkartu behar dugu eta ordezkatuko gaituen ahots bat eratu behar dugu. Musikariok kasu gehienetan bakarka aritzen gara lanean, eta bakardadean ahalegintzen gara geure arazoei aurre egiten. Baina arazo horietarik asko estrukturalak dira eta taldean elkartuta besterik ezingo ditugu konpondu.

**Noiz bururatu zitzaizuen elkarte berri era-  
tzea eta zer izan da zailena?**

2012an aurreko zuzendaritza batzordeko kideak harremanetan jarri ginen. Orduan erabaki genuen jendea batzea eta elkarte eratzeko oinarria jartzea. Jende askok animatu gintuen pauso hori ematera. Garai hauetan musikariok beldur eta ziurgabetasun handia izaten dugu, eta ohikoa da “zerbait egin

**“Elkartean denetarik dago, abeslari lirikoak, jazz musikariak, abangoardiako konpositoreak, pop eta rock gitarrak jotzaileak... Hasiberriak eta onespen handia dutenak”.**

**Zeintzuk dira elkartearen lehentasunak? Zertan hasi zarete?**

2013an, batez ere elkarte ezagutzera ematea dugu helburua, hazi nahi dugu. Fakturazioari lotutako zerbitzua kudeatzen eta eskaintzen ari gara; gainera, musika industriaren gaineko erabaki garrantzitsuak hartzen diren foro publiko eta pribatuetan ordezkatuta egotea nahi genuke. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin batera proiektu handi batean lanean ari gara dagoeneko: diskoetxe, kontzertu areto, eragile pribatu eta musika edo kultura alorreko bestelako agenteak batuko dituen mahaiaren eraketan ari gara. Aspaldian oso zigortua eta gehienetan eskas antolatuta dagoen sektorea babesteko politikak diseinatu behar dira, zentzu horretan proiektuak eta dinamikak abiarazi behar dira. Bestalde, SGAE eta AE moduko kudeaketa-erakundeekin, Musikagileak-ekin

beharko dugu” entzutea. Zerbait horrek elkarte berpiztea ekarri du. Oso harrera ona izaten ari gara, eta kanpaina egiten hasi aurretik 80 bazkideetik gora ginen.

Orain arte ditugun bazkideetatik gehienak musikari interpreteak dira, baina horietatik asko, agertokietan aritzeaz gain eskola eta konserbatorioko irakasleak ere badira. Musikari konposatzaileak ere baditugu, eta estiloei erreparratuz gero, denetarik dago: abeslari lirikoak, jazz musikariak, abangoardiako konpositoreak, pop eta rock gitarrak jotzaileak... Hasiberriak zein izen eta onespen handia dutenak.

**Zer eskatzen diezue bazkideei? Eta zer ematen diezue trukean?**

Bazkideek urteko 60 euro eman behar dituzte, eta ordainean bi zerbitzu nagusi jasotzen dituzte. Batetik, kontzertuen fakturazioari lotutako zerbitzua jasotzeko aukera dute. Musikari askok ez dituzte urte osoan kontzertuak egiten eta ondorioz ezin dute hileroko hileroko autonomoen kotizazioa ordaindu. Horri konponbidea emateko, elkarteak hitzarmena sinatu du Kataluniako Musicat kooperatibarekin. Bestetik, erakundeen aurrean elkarteak egiten duen lan guztiaren berri izango dute, eta uneoro galdetuko zaie hartu beharreko erabakien gaineko iritzia.



eta beste batzuekin elkartzen hasiak gara, laguntza eta babesa lortzeko, edo elkarlanean proiektuak bultzatzeko. Aurten, esaterako, elkarteak lau master-class antolatuko ditu –jazz musika, pop-rocka eta doinu banden sortzea–. Elkartearen beste helburuetako bat profesionalei entzabeko formazioa ematea da.

**“Egia da musikariok garai gogorak bizi ditugula, baina ezin dugu ahaztu sorkuntza aldetik oso garai onak direla. Goi mailako jende asko dago, gazteak oso prestatuta datoz”**

**Sakondu dezagun apur bat musikarien egunerokoan. Teknologia berriek on edo kalte egiten dizuete?**

Hor txanponaren bi aldeak daude: teknologia berriei esker, musikariok bitartekari gabe aski gara, baina era berean, grabatzea eta editatzea askoz errezagoa denez, merkatuan gehiegizko ekoizpena dago, saturazioa. Baina bada besterik ere: CD formatuaren krisia oso garrantzitsua da. Orain musika beste modu batzuetan banatzen eta kontsumitzen da. Zapaltzen dugun lur guztia mugitzen ari da eta ez dakigu aldatetak noraino helduko diren.

**Baina dena ez da ezkorra, ezta?**

Ez. Egia da musikariok egun gogorak bizi ditugula, baina ezin dugu ahaztu sorkuntza aldetik oso garai onak direla. Goi-mailako jende asko dago, gazteak oso prestatuta datoz, Musikeneren emaitzak ere ikusten hasiak gara. Musika klasikoan eta jazzean –bereziki ezagutzen ditudanak– jakituria handia dago.

**Publikoaren ohitura aldatetak egiten du minik handiena?**

Mediatikoa eta globalizatzailea den orok zeresan handia du, txikia zanpatu egiten delako. Gaur egun oso ohikoa da Bruce Springsteenek Anoeta goraino betetzea eta, adibidez, nik kontzertua taberna batean eta 15 lagunentzat egitea. Oso muturreko egoerak bizi ditugu. 80ko eta 90eko hamarkadetan bertako musikari asko maila ertainean mugitzen ginen; 100, 200 edo 500 ikusle artean. Ez zuen inork milaka pertsonako jendetzarik batzen, ezta 10 lagunekoak soilik. Era berean, taldeontzat hain garrantzitsua zen kultura zirkuitua izugarri txikitu da, udalek ez dutelako dirurik.

Profesionalki, errebindikatzen dut maila ertainean jarraitzea, behe-behekoan aritu beharrean. Gizartean beste horrenbeste ger-

**EGIZUHARPIDETZA**  
**EGIOZUHARPIDETZA**

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea  Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan kobratu SEILORIK EZ

**argia**

1-FD POSTA KUTXA  
20160 LASARTE-ORIA  
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA  
Baimen zkia. 17352  
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELORAREN HIRIBAN



tatzen ari da, erdikoa desagertzera doala. Dena dela, gure eskaera ez da gu subentzionatzea edo lanik egin gabe bizi ahal izatea. Artista ezezagunagoak garenok ere musikan profesionalki aritzen jarraitu nahi dugu.

#### Musikari guztiok zaudete norabide berean?

Ez. Batzuek musikari profesionalak eta ez profesionalak bereiztu beharra aldarrikatzen dute. Izan ere, bada bizibide moduan bankuan, fabriketan edo nonahi lan egiten duen musikari asko; eta horietako batzuk arrakastatsuak dira, caché handiak dituzte, gainera. Eta badira beste batzuk, ni tartean, eguneko 24 orduak musikan lanean aritzen garenak. Batzuen ustez musika bizibide dugunok bakarrik jaso beharko genituzke laguntzak. Eztabaida handia dago horren gainean. Nire ustez, gure profesionalitatea aldarrikatu behar dugu, arrakastaren gaintetik. Hala ere, elkarteko atek musikari guztiei zabalik daude, baita gitarra soilik etxean jotzen duten horiei ere, baldin eta informatuta egon nahi badute.

#### Egile eskubideez eztabaidatu beharra dago.

Jakina! Gai oso korapilatsua da eta iritzi ugari dago: batzuek copyleftaren alde egiten dute, beste batzuek jabetza propioa babestu eta diruzko ordaina nahi dute... Baina gizartean gai honi buruzko desinformazio handia dago, eta eztabaida ireki nahi dugu ahalik eta iritzi gehien jasotzeko.

Dena dela, SGAEk erabat kakaztu du gai hau, egile eskubideen kudeaketa guztia monopolizatu baitu luzaroan. Musikari gehienok erakunde horren bazkide bagara

**“Ozen esan beharra daukat egile eskubideen kudeaketaren defendatzaile garenok ez dugula inolaz ere onartzen SGAEk musikaren kontrola egiteko bultzatu duen estatu poliziala”.**

ere, garbi dugu ez gaituela berorrek ordezkatzeko. Ni, adibidez, egile eskubideak babestearen aldekoa banaiz ere, uste dut SGAEren jarrera gehiegizkoa izan dela, eta gainera gerora egiaz-tatu da lapurreta egin dutela. Guztiok haien kontra jartzea lortu dute. Inoiz txantxan esan didate ez dutela dutxan nire kanturik txistukatuko, ordaindu behar izango dutenaren beldur. Ozen esan beharra daukat egile eskubideen kudeaketaren defendatzaile garenok ez dugula inolaz ere onartzen SGAEk musikaren kontrola egiteko bultzatu duen estatu poliziala.

#### Ikusiko dugu inoiz egile eskubideak kudeatuko dituen Euskal Herriko erakunderik?

Zalantzan nago. Batetik, egile eskubideen gaia oso zabala dela-

ko eta Internetek zabalkunde handiagoa ematen diolako; eta bestetik, erakunde are eta zabalagoek indar handiagoa egin ahal dutelako. Baina erakundearen eta artistaren arteko hurbiltasuna ere garrantzitsua da. Hortaz, Euskal Herriko erakundea, isolatuta egon beharrean, beste batzuekin federatuko balitz, egingarria izango litzatekeela uste dut.

#### Kontzertuek lehen zuten balioa galdu dute?

Ikusleek interes puntu bat galdu dute, ez dago zalantzarik, eta horren erantzukizunaren zati bat musikariona ere bada. Eskaintza eskaera baino askoz handiagoa da, ikusleek ez dute diru askorik. Faktore kaltegarri ugari dago: telebistari gehitu zaio spotify, streaming edo youtubek kulturalki asetzen gaituztela pentsatzea... Jendea ez da dagoeneko kalera irteten, ez da zinemara, hitzaldietara, ez eta kontzertuetara joaten. Internet zoragarria da, baina ezin du gainerako guztiaren ordezkio izan.

Eta musikariok, autokritika eginez, onartu behar dugu ez ditugula behar beste zaintzen eszenaratzea, soinua, lekua eta puntualtasuna. Gure helburua izan behar da ahalik eta kalitate handieneko emanaldiak eskaintzea musikan, une hori magiko bihurtzea.

#### Zein izan behar da erakunde publikoen rola?

Erakundeek, beren kabuz biziraun ezin duten musika talde, diskoetxe eta bestelakoak babestu beharko lituzkete; kultura eta artearen sareko eragile ahulenei laguntza eman beharko lieke. ■






# René Petiten amesgaiiztoak

ESA handitzeari buruzko dokumentala





Literatura

*Motoa*  
 Juan Kruz Igerabide  
 Alberdania, 2012

## Motoan ibiltzen ikasi

LASTER BATEAN irakurtzen diren ehun orrialdeetan biltzen da Juan Kruz Igerabideren azken eleberria. *Motoa*. Bertan kontatzen dena istorio sinplea da, misterio handirik gabea, eta ulertzen erraza. Hitz batean esateko; entretenigarria.

Hamabost urte beterik, Igorrek moto bat erosi du aitona utzitako herentziarekin. Gazte berezia da Igor; ezin du, marrantarik gabe, hiru hitz baino gehiago segidan ahoskatu. Ausarta eta isila; eta lotsatia, erdi maingu zelako. Aita eta arrebarekin bizi da, amak beste gizon batekin alde egin zuelako, eta etxe-egoera ekonomikoa larri samarra da. Giro personal hartatik kanpo, Igor bere lagun Tripazorrorekin ibiltzen da herrian barna, motoarekin gora eta behera, Irene tartean sartzen den arte. Orduan hasiko dira istorioari gatz apur bat gaineratzen dioten ezin pentsatuzko gertakari kateatuak.

Eleberria, nerabzaroko gai eta arazo “ohikoetan” oinarrituz eraikia da. Gazteen ahotan sexua eta drogak presente daude etengabe baina, era sotilago batean, pertsonaiek mantentzen dituzten elkarriketen bitartez, azaleratuz joango dira gazteria kezkatzen duten beste hainbat motibo: talde baten partaide izatearen premia, aurrez pentsatu gabeko bulkadak, munduarekiko errebeldia eta, askotan horri loturik, politika arazoak.

Tematika aldetik gauza interesgarriarik topatu ez dudan arren, bada bereziki nire atentzioa bereganatu

duen elementu bat. Motoa. Zergatik izenburutzat aukeratu? Zein da haren garrantzia?

Eleberri hastapenetik amaierara ageri den konstantea da. Nik esango nuke elementu narratibo gisa erabilia dela. Igor moto gainean dagoen oro, bere haurtzaroko oroitzapenak flashback moduan txertatzen dira: aitonaaren heriotza, amaren gaixotasuna, arrebarekiko erlazio katastrofikoa, institutuko pasadizo zenbait, etab. Gutxinaka, pertsonaien bizitzetako piezak bilduz goaz, ulertuz, eta ikusiko ditugu nola iragan horren zamarekin aurrera egiten saiatzen diren.

Motoa, bizitzan aurrera egite horren sinbolo gisa ulertu dut nik. Nerabezaroaren aurrera egiteko moduarena hain zuzen ere; zarataka, azkar eta, Igorren kasuan, galgarik eza: “Igorrek hori guztia oroitzen zuen bitartean, galgen klik ia sumaezina nabaritu zuen berriro hatzetan. Ondo berrikusi beharra zeukaten galga-sistema”.

Galga sistemaren soinua arriskuaren seinale da. Eszenaren errepikapena *in crescendo* somatuko dugu eleberrian zehar, bat datorrelako tramaren intentsitatearekin. Igorren esku dago azeleragailua sakatu ala ez: “oraingoa ez zion arretarik jarri galgak egin zuen klik nabarmenari”.

Kolpea hartuko al du, edo garaiz geldituzten jakingo du. ■

Saioa Ruiz Gonzalez





# Udako solstizioa PLANETARIUMEAN

Ekainak 22 eta 23 an  
 Ikus entzunezko saio bereziak  
 Sarrera doan  
 Leku kopuru mugatua

[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es) / 943 012 478



**eureka!**  
 zientzia  
 museoa  
kutxa gizarte ekintza





## Paisaia liluragarriak

IBAN NIKOLAIREN DOINUAk entzuten ditudanean, oharkabean, bidaiatzen hasten naiz, eta paisaia liluragarriak ikusten ditut: itsasoa, mendiak, basoak, zelaia... Giro hunkigarriak eta sentsazio paregabeak nabaritzen ditut.

Didjeriduaren soinu bereziarekin bibrazio apartak sorrarazten dizkit. Didjeriduarekin bakarrik lor daitezkeen hots eta soinuak ederki jotzen ditu Iban Nikolaik, eta melodia politak ere egiten ditu. Kantuak giroak dira batez ere, baina ez dira bareak edo geldoak. Erritmikoak dira, dantzagarriak edo gorputza mugitzeko modukoak.

Didjeridua diskoaren ardatz nagusia da. Hainbat didjeridu motarekin aritu da perkusio soinuak eta melodiak sortzeko, eta aho perkusioa, loop-ak, PVCko tutu bat eta beste tresna batzuk ere erabili ditu grabazioan.

*Organika* lan ederra Iban Nikolai azken aldian egiten ari den jendaurreko emanaldien ispilua da. Orain arte egin duen diskorik pertsonalena da. Doinuak berak konposatu ditu, mimo handiz, eta berak bakarrik egin du dena grabazio saioetan, beste



*Organika*  
Iban Nikolai  
Autoekoizpena,  
2013

musikaririk edo kolaboratzailezik ez baita izan. Berako Mikestudioan grabatu, nahastu eta masterizatu du diskoa, Aitor Garcia Maikel eta David Giner teknikarien laguntzaz.

Kantuen artean, aipagarria da Prodigy taldearen *Their law* eta Deep Purple taldearen *Smoke on the water* kantuak omendu dituela. Bi kantu horien oso bertsio bitxiak egin ditu. Halaber, Jon Manterolak osatutako *Voices* bideoklipa ere badago *Organika* lanean.

Didjeridua Australiako aborigenek antzinatek erabiltzen duten haize musika tresna da. Ezpainek bere barruan bibrazten dutenean soinu berezi bat sortzen da. Eukaliptoaren eta beste zenbait zuhaitzen egurrezko tutu bat da. Termitek zulatu eta enborrharen erdiko zatia jaten dute, eta horrela egiten dute tutua. Didjeridu izena europarrek jarri zioten, Australiako aborigenen hizkuntzetan hamaika hitz baitaude musika tresna hori izendatzeko: yidaki, ginjungarg, eboro, djalupu, maluk, eta abar.

Iban Nikolai duela 15 bat urte hasi zen didjeridua jotzen. Djalu Gurruwiwi eta Milkayngu Munungurr maisu aborigenekin ez ezik, beste hainbatekin ikasi du: Mark Atkins, Gary Thomas, Charlie McMahon, Mattias Muller, Lies Beijerinck, Ansgar Stein, Sjaak Sbell, Marcos Andreu, Dubravko Lapaine, Gauthier Aube, Nello Chiuminatto, Raul Orte...


Oiartzuarra da baina Ataunen bizi da Iban Nikolai. Jendaurreko emanaldiak egiteaz gain, eskolak ematen ditu. Jaialdi eta tailer ugaritan parte hartu du European, Australian eta Ameriketan. *Organika* lana bere seigarren diskoa da. Aurrekoak: *Alla Yidaki* (2011), Samar taldearekin osatu zuen *Ramas* (2008), *Hamar* (2007), *Didjeridu Hotsak* (2003) eta *Yurlungur* (2002).

Musikari handia eta geldiezina da. Bere lanetako doinuak jendaurrean jotzen aritzen da, eta talde eta artista ugarirekin ere jardun izan du, laguntzaile moduan. Besteak beste: Wooden Cave Project, Oscar Portugues, Rude Kanka, Briganthya, Faltriqueira, Banja Luka, Zea Mays, Oreka TX, Zurartean, Ibon Koteron, Luis Camino, Desoreka eta Xabi San Sebastian. ■

Joxi Ubeda



### Gurutzegrama



**Ezker-eskuin:**

1. Konforme. ... ondo, bata bestearen atzetik.
2. Izozte. Garen hauek.
3. Barazki hostotsua. Iritziak, aburuak.
4. Testigu. Maiz, sarritan.
5. Mongoliari dagokion domeinua. Prakagorri, demonio. Ia-ia.
6. Eako biztanle. Semen, esperma.
7. Ohoin, lapur. Mota bereko lau gauzaz osatua, laukoitz.
8. Zona, inguralde. Zokora.

**Goitik behera:**

1. Ahalbidea, posibilitatea.
2. Hamabi ale.
3. Zakurrak. Dut (alderantziz).
4. Sozietate Mugatua. Nafarroako herria.
5. Zerbait egiteko abagunea.
6. **Argazkian.** Sailburu (laburdura).
7. Oso, erabat. Bele hitz-elkarketan.
8. Ugaritasun handian.
9. Ondasun.
10. Fruituetatik ateratzen den likido.
11. Bih, garau.
12. Argi.
13. Eskuaren barneko alde.
14. Pilota jokoan jartzea.
15. Zimur.
16. Kinina ateratzen den zuhaitza.

### Sudokuak

Erraza

5	9	2	4		7			
3			5		2			
4	7		9	3		2		
8			1				5	
9	1	7				3	2	8
	3				9			4
		8		5	1		7	2
			2		4			6
			7	8	5	4	3	

Zaila

		2			5			
8	1			4		6		
	6	5	3	1				
6	7	4						
2	3						8	6
						4	1	7
				6	3	8	7	
		6		2			5	1
			4			9		

### Soluzioak

1	2	9	7	6	8	5	4	3
7	5	3	2	6	4	8	1	6
6	4	8	3	5	1	9	7	2
2	3	5	8	7	9	1	6	4
6	1	7	6	4	5	3	2	8
8	6	4	1	2	3	7	5	9
4	7	1	9	3	6	2	8	5
3	8	6	5	1	2	4	9	7
5	9	2	4	8	7	6	3	1

Erraza

1	8	3	4	5	7	6	9	2
7	4	6	8	2	9	3	5	1
5	2	9	1	6	3	8	7	4
9	5	8	2	3	6	4	1	7
2	3	1	7	9	4	5	8	6
6	7	4	5	8	1	2	9	3
4	6	5	3	1	8	7	2	9
8	1	7	9	4	2	6	3	5
3	9	2	6	7	5	1	4	8

Zaila

**Ezker-eskuin:** 1. Ados, Ondoz, 2. Hormare, Gu, 3. Aza, Utsak, 4. Lekurko, Utsu, 5. Mn, Deabru, Kasik, 6. Eamr, Ernal-hazi, 7. Ebaste, Laukum, 8. Alder, Bazterera.  
**Goitik behera:** 1. Abalmentza, 2. Dozena, 3. Orak, Teal, 4. SMJ, Udabe, 5. Aukera, 6. Otsua, Sb, 7. Ner, Bel, 8. Eurrez, 9. Ogasun, 10. Zulu, Ale, 11. Klar, 12. Abur, 13. Sake, 14. Izur, 15. Kina.

## Kike Amonarrizen umorea



### Ultzamarren aberastasuna

Aste honetako txis-tea ere Jonjo Agirre irakurle finak bidalitakoa da.



Ultzamar bat hilzoriar da, Iruñeko Virgen del Camino erietxean. Azken hatsa eman aitzin, seme-alabak eta emaztea bildu ditu, erizaina bertan delarik:

- Zuretzat, Xabier, Sarasate kaleko etxeak -erran dio seme nagusiari.
- Leire maitea, zeuretzat Gaztelu plazako guziak!
- Zuri, Permintxo, gazteena

baina bizkorrena izaki, Navarrerria eta Kaldereriako guziak.

- Atzenik, zuretzat, emazte maite, Buztintxuri osoa.

Erizainak, harri eta zur, emazteari erran dio:

- Anderea, ez zuen ematen baina, zein aberatsa den zure senarra!

Eta emazteak bat-batean:  
 - Aberatsa? Kaka zaharra! Horiiek esnea saltzeko ibilbideak dira!



## Balet beltza

HERRI URRATSEN egin zuten estreinako agerraldi publikoa. Zazpi lurralde historikoetako dantza-talde bana iragarrita zegoen, bata bestearen ondotik Hordantza guneko eszenatokian aritzekoak. Zuberotarrak ziren misterio handiena; bagenekien, han eta hemen entzunda, ez zela izango maskaradako puntuen ohiko emaldi bat.

Jakin-minez beteta hurbildu ginen, iragarritako berritasuna zer ote. Agertoki gainean, berotze ariketetan, Kautere Sinfoniako musikariak ziren. Senpereko hondartzan barreiatu, berriz, arropa bitxiz jantzitako dantzariak. Gerora ezagutu genuen, goiko argazkian oihuka ageri den JohaÑe Etxebest larraintarrak esplikatuta, haien historia: zortzi dantzari dira, denak gizonezkoak, azken hamarkadan Zuberoan ikusi diren onenetakoak –hori neuk diot, ez Etxebestek–; behinola, Kauter Sinfoniako kide batek akuilatuta hain justu, maskarada eta pastoraletan lortutako eskarmen-tua karriketari aritzeko baliatzea erabaki zuten.

Hala sortu zuten Kautere Balet taldea. “Karrikan dantzatu nahi dugu, dantzarekin dibertitu gaitezkeela erakutsi, mutilei adierazi badela errugbiaz besterik”, dio Etxebestek. Bide batez, maskaraden bitasuna islatu nahi dute: beltzen basakeria, aitzindarien fintasunarekin nahasirik. Hortik izena, Kautere Balet.

Herri Urratsen aurkeztu zuten ikusgarriari izena jartzeko ez zuten burua gehiegi nekatu: *Kauteren Baleta*. Astebete ondoren Urdiñarben plazaratu zuten, Musikaren Egüñean –argazkiak hor eginak dira–. Ez dute berriz emango, zerbait landuago egin nahi dute eta. Pausatuago jardun nahi dute eskuntzan, eta horri eskainiko dizkiote udako ordu asko.

Horiexek JohaÑe Etxebestek



emandako azalpenak. Esan behar da, halere, hau sinatzen duenaren iritziz prestakuntza faltarik ez zitzaiola nabaritu *Kauteren Baleta*-ri, izen aukeraketan ez bada. Dantzariek, binaka edo banaka, eszenatokira igo ahala, janzkeraren xehetasunei erreparatzen hasi ginen: buruan txapela zeramaten lauk, zinta bat beste laurek. Eta berehala argi geratu ziren rola. Tradizioaren defendatzaile sutsuarena egin behar

zuten lehenbizikoek; besteek, modernitatearen aldekoak ziren. Eta ikusgarri osoa, finean, talde bien arteko erronka izan zen.

Lehenik, kantuz oldartu zitzaizkion elkarri. Txapeldunak koplaka, zintadunak raparekin. Irabazle garbirik ez zegoela eta, borroka dantza-eremura eramane zuten: bakoitzak bere erara emango zituen Zuberoako dantzetako puntuak, eta ikusleek erabakiko zuten arrazoia nori eman. Han hasi zen hogeita minutuko erakustaldia, zortzi atletak baino eman ezin dezaketena. Iraganzaileen zatietan txirulari protagonismoa emanez, eta modernoenetan tresna elektrikoak nabarmenduz, dantza jauzien katalogo ederra erakutsi zuen taldeak, izenaren *Balet* horren jatorria justifikatuz. Ezjakin honek ezin bereizi, egia esan, batzuen eta besteen estiloa, baina Zuberoan dantzan aritu den edonor antzinako-oraingo diktomiaz erraz jabetuko zela esan digu JohaÑe Etxebestek. Funtsean, esan dezagun garai bateko puntuak sinpleagoak zirela, baina eritmoa ongi markatzeari garrantzi handia emanez.

Bi aldiz baino ez da izan *Kauteren Baleta*-z gozatzeko aukera, baina aztarna eman digu talde honetaz ser espero dezakegun jakiteko. Zer egingo duten oraindik ez badakite ere, argi dute erronka egitura mantenduko dutela beren emanaldietan. Hori bai, ikusleen parte hartze handiagorekin. Hurrengo hitzordua irailan dute, Zuberoako ikastolen aldeko ekitaldi batean.


Bidenabar, Herri Urratsen diplomazia handiz jokatu zuten eta norgehiagoka berdinduta amaitu zela ebatzi zuten. ■

Unai Brea



# Nola kalkulatu da sakearen abiadura tenisean?

CHRISTIAN MESIANO-CC BY SA



OHIKO BIHURTU ZAIGU, tenis edo esku pilota partiduak telebistaz ikustean, pilota erraketatik edo eskutik ateratzean duen abiadura gure telebistako monitorean azaltzea.

Tenisean errekorra orduko 251 kilometrokoa da, eta Ivo Karlovic kroaziarraren esku dago 2011ko martxoaren 5az geroztik. Esan gabe doa abiadura hori sakeko unean neurtu zela, hori baita pilota azkarren higitzen den unea.

Abiadura neurtzeko radarrak erabiltzen dira; bina radar kokatzen dira jokalarari bakoitzeko eremuaren atzealdean, eta radarretako batek seinaleak emititu eta besteak jaso egiten ditu. Roland Garros lehiaketan, adibidez, seinale horiek mikrouhinak dira; radar batzuek mikrouhinak emititzen dituzte, eta horiek pilotarekin talka egitean, beste radarrek pilotak islatutako uhinak jasotzen dituzte. Bi uhin moten frekuentzien arteko aldea eza-gututa, abiaduraren datua lor daiteke.

Bide batez, adierazi beharra dago pistatik kanpora doazen pilotakadek, alegia, "txarrek", ez dutela errekor ofizialetarako balio. ■



# Tiroide minbiziaren zabalkunde ikaragarria Fukushiman

MAIZTASUN TXIKIAGOZ baldin bada ere, noizean behin Fukushimako berriak iristen zaizkigu. Une honetan, esan dezakegu astero aurkitzen dutela ihes egindako ur kutsatua, eta erradioaktibitatea ez dela jaisten ari, oro har. Baina batez ere datu batek eskuratu du gure arreta: gazteen artean tiroide minbiziaren prebalentziak izan duen hazkundeak. Japoniako prefektura gehienetan 15 eta 19 urte arteko 100.000 pertsonatik batek izaten du minbizi mota hori, baina Fukushimako prefekturan batez bestekoa 6.000 ingurukoa da. ■



ADOLFONEDA.COM



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

  
 web garapenak

  
 multimedia

  
 aholkularitza

  
 edukiak

  
 interaktiboa  
[www.iametza.com](http://www.iametza.com)  
 T.943 37 67 16

## Primate zaharrenaren eskeletoa, hatz baten tamainakoa

Txinako Hubei probintzian orain 55 milioi urte bizi izan zen primate baten hezurdura aurkitu dute. *Archicebus achilles* espezieko primataren hezurdura zazpi zentimetro luze da, isatsak hamahiru zentimetro ditu, eta pisua hogeitaz gramokoa da. Laku batean, harkaitz baten barruan zegoen eskeletoa; oraingoan, topatu den primate baten hezurdurarik zaharrena da.

ttiki.com/51632  
(Gaztelaniaz)

## Altzairua merkeago eta ekologikoago ekoizteko sistema

Urtero 1.500 milioi tona altzairu ekoizten da munduan; haren produkzioak du CO<sub>2</sub> igorpenen %5aren erantzukizuna du. AEBetako ikerlari talde batek altzairua produzitzeko prozesu berria asmatu du, CO<sub>2</sub>-ren ordez oxigeno purua igortzen duena.

ttiki.com/51634  
(Gaztelaniaz)

## Linfozito dopatuak minbizi-zelulak hiltzeko

ASCOren (AEBetako Onkologia Kliniko Elkarte) 2013ko batzarra egin berri da Chicagon. Jorrotutako gaien artean, batek bereganatu du gure arreta: minbizi-zelulak hiltzeko, linfozitoak dopatzea. Antza denez, linfozito dopatuek era naturalean hil ditzakete minbizidun zelulak.

ttiki.com/51635  
(Frantsesez)



## Negozioa

GEUK DARAMAGU natura muturrera, akaberara. Nekazaritza industrializatua dugu, aspaldi, eta irtenbiderik gabeko otso zulo batera daramagu. Eta garamatza. Sistema eta teknika aurrerapenen izenean gero eta bide makurragoetan barrena goaz. Bagoazela! Nora orde? Negozioaren izenean milaka urtetan ondutako aberastasuna suntsitzera, geure buruaz besteren bat egitera. Negozioa da, bai orain nekazaritza. Nekazari bizi nahi duenak beharko du, berriz ere, psikologo edo zer edo zer.

Etekinaren usainean landare aldaera edo klase berriak sortzea eragiten da. Negozioaren helburuetarako baldintzetara ondoen egokitzen diren barietateak hautatzerakoan landare horien beste ezaugarriak bide bazterrean gelditzen dira. Lehengoan nioena, adibidez. Kiwi gozo-gozo baten atzetik 23 urtez ikertu, eta lortu, baina gaitzei aurre egiteko gaitasuna galdu du bidean. Hura ekoizteko inbertsioak egin dituzten fruituzainak hankaz gora. Hankaz gora buruz behera baitoaz, bere burua botata...



*Actinidia arguta*, koktel kiwia.

Psikologoetara iritsi behar izan da kiwizalea. Ikusi nahi dituenarentzat alarmak argiak dira. Nekazaritzaren negozioaren adibide asko dago. Behi esnea sortzen duten ukuilu industrialak, adibidez, gero eta gehiago bertako jatenak uzten eta kanpotik ekartzen dituztenak.

Jakina da haziekin gertatzen ari dena. Transgeniko kaltegarriez gain, enpresa handiek patenteen bidez hazien erabilera bereganatzen ari dira. Politikariak enpresa horien manjateretan bazkatzen direnez, laster hazi naturalik egiteko eskubiderik ere ez dugu izango...

Hazirik gabeko fruituak ere gero eta maizago ikusten dira. Udareak adibidez. Lehendik bananek, pikoeak eta abarrek haziak hazteari utzi diote, alferrikako lana. Geuk ugaltzen ditugu txertoz edo aldaxkaz klonatuz eta ez dute ugalketan pentsatu ere egin beharrik. Laster fruiturik ere ez dute emango...


Kiwi horiaren gaitzak bezala, jo eta denak akabatzeko joera duen arazoren bat sortzen ez den artean ezikusiarrena egiten dugu, baina orduan ito beharrean jartzen gara. Alarma guztiak pizten ditugu. Bitarte horretan ikaragarriak eta bi egin dira, eta guri bost. Alarma horrek edozer astakeria ametitzeko giroa sortzen du: sagarrondo guztiak galtzerainoko gaitasuna omen zuen sugorrina tratatzeko antibiotikoak erabili ziren, lehen aldiz.

Kiwiekin amaitzeko, 90 espezie baino gehiago ezagutzen dira, baina *Actinidia arguta*, koktel kiwia da azken puntakoa. Modan jarri dugun azkena. Horrek ere izango du ipurdian zuloa. ■



# 120.000

**Izugarriak** dira baobabak, *Adansonia sp.* Itxura izugarriaz gain berez ere halaxe dira. Eitea eta izatea bereziak. Ura orain suilaka eta puska batean ttanttarik ere ez izaten den tokian bizitzera jarriak daude. Enborrean 120.000 litro ur baino gehiago bildu eta jasotzeko gai dira. Zerbaitegatik deitzen zaie botila-zuhaitz. ■



JIALIANG GAO-CC BY SA



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:

· Ezagutu eta aukera ezazu Urbina Garden-en.  
Legutio ☎ 945 40 34 23

☎ 609 42 45 47 · [lorelan@euskalnet.net](mailto:lorelan@euskalnet.net)



# Zementu zati bateko herritarra izan nahi?

NAZIOARTEKO URAK, 1942. Ejertzito britainiarrak Essexeko kostaldetik hamahiru kilometrorera dagoen hondarpe baten gainean HM Fort Roughs itsas gotorlekua jarri zuen. Bi dorreen gaineko plataformak 550 metro koadroko azalera besterik ez zuen, baina Bigarren Mundu Gerrak iraun bitartean itsas armadako 150 kideko taldeak okupatu zuen. 1956an utzi zuten plataforma azken soldaduek.



Roughs Tower itsas plataforma. Edo Sealandeko Printzerria.

1976ko irailaren 2an, armada britainiarreko komandante ohi Paddy Roy Bates-ek Roughs Tower plataforma hartu, bere burua Sealandeko printze izendatu eta zementu zatiaren subiranotasuna aldarrikatu zuen. Hurrengo urtean, britainiar itsas armadako ontzi bat "errege familia" Sealandetik botatzen saiatu zen, baina printzerriko biztanleek tiroz erantzuten zuten. Royren seme Charles -gaur egun Sealandako Charles I.a printzea- epaitegietara eraman zuten, baina auzia bertan behera utzi zuen Chelmsfordeko auzitegiak, eraso britainiar uretatik kanpo gertatu zela argudiatuz.

1978an, Bates kanpoan zela, Alexander G. Achenbach "lehen ministroak", seandar talde baten babesaz, gotorlekua indarrez hartu zuen. Batesek kontraerasoa prestatu zuen: helikoptero bat lortu, printzerria berreskuratu eta errebeldeak "gerrako presotzat" jo zituen. Gehienak gatazka amaitzean askatu zituzten, baina Gernot Pütz alemaniar abokatua traidoretzat jo eta preso atxiki zuten. Londresko enbaxadako alemaniar diplomatiko batek bitartekari lanak egin behar izan zituen Pütz askatzeko. Achenbachek eta haren jarraitzaileek erbestaldian Sealandeko legezko gobernuko kideak zirela aldarrikatzen jarraitu zuten arren, printzearen begietan hura beste garaipen

handi bat izan zen Sealandeko historia loriatsuan.

90eko hamarkadan, esperpentoa biribiltzeko, espainiar guardia zibil ohi bat sartu zen herrialde ñimiñoaren ibilbide labur eta mamitsuan. Francisco R.T.-k Sealandeko enbaxada muntatu zuen Madrilgo Serrano kale garestian, eta bere burua erregeorde izendatu. Laguntzaile talde bat osatu zuen, kargu diplomatikoak eman zizkien, beren autoei matrikula diplomatiko faltsuak jarri, benetako enbaxadetako festetan gonbidapenik gabe azaltzen zen... Eta milaka pasaporte saldu zituen 9.000 eta 55.000 dolar bitarteko prezioan, baita noblezia tituluak ere. 1997an, sarea desegin eta arduradunak atxilotu zituztenean, Sealandek 160.000 biztanle zituen, pasaporte kopuruan oinarrituta behintzat.

2007an printzerria salgai jarri zuten 750.000 milioi euroren truke, Espainiako Inmonaranja agentziaren bidez. Espainiar "enbaxadarekin" izandako eskarmentua ez zen nahiko izan, nonbait.

Erosleren bat azaldu bitartean, gaur egun, printzerriak noblezia tituluak eta hainbat merchandising produktu eskaintzen ditu plataformaren albo batean letra handiz iragartzen den [www.sealandgov.org](http://www.sealandgov.org) webgunean. ■



## Arrastoak

### la ezerezetik berregingo den egiptoar gurdia

2008AN Salima Ikram eta Andre Veldmeijer egiptologoen Antzinako Egiptoko Larrukingintza Proiektua (AELP) delako abiatu zuten, jarduera horretan egiptoarrek erabilitako teknologiak aztertzeko. Besteak beste, larruz estalitako gurdiak zituen aztergai proiektuak.

Gurdi arin horiek K.a. 1650. urte inguruan erabiltzen hasi ziren helburu militarrekin. Ondoren, gizakien eta salgaien garraiorako ere erabili ziren. Baina material organikoz eginak zeudenez ez da alerikgaurdaino gorde, eta horma-irudien nahiz erliebeen bidez soilik dugu haien berri.

Proiektuko kideek Kairoko Egiptoar Museoko biltegiatan zaldientzako larruzko uhaleri zatiak zeudela jakin zuten, baina materiala ikustera joan zirenean gurdi baten estaliaren 300 zati topatu zituzten. Orain, puzzlea osatzeko falta diren zatiak sortuz, egiptoar gurdi bat berregiten ari dira lehenengoz. ■



NATIONAL GEOGRAPHIC



Goian egiptoar gurdiak irudikatzen duen erliebea. Azpian, ikerlariak aurkitutako larru zatietako bat.



# SDB

*Joxan Lizarribar gogoan*

SORTUKO DIRA BESTEAK 2013

**MIKEL URDANGARIN** PETTI  
**OLATZ PRAT** ARANTXA IRAZUSTA  
**ALEX SARDUI** MIXEL DUCAU  
**HARKAITZ CANO** EÑAUT ELORRIETA

Ekainak 21. 20:30tan  
Leidor Antzokia. Tolosa



COLETTE CAPDEVIELLE

# «Bakoitzak antolatu behar du bere lurralde proiektuaren arabera»

1958, Ortheze (Bearn). PSko kidea da. Frantziako Asanblea Nazionaleko diputatua; Lege Batzordean ari da. Frédérique Espagnac senatariak emendakin entzutetsuaren azalpena prentsa-aurrean eman zuen egunean –arratsean– elkarrizketatu genuen Pirinio Atlantikoetako 5. hautes-barrutiko diputatua. Sinpatiaz, kuraiaz, baina amiñi bat kezkatua mintzatu zaigu.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

MAKEAKOA (Lapurdi) zuen amatxi; Landetako eta Bearnokoak ditu gurasoak. Emakume libre eta engaiatu gisara mintzatu zaigu Colette Capdevielle. Lurralde Elkargoaren aldeko manifestazioaren (Baionan, ekainaren 1ean) ondorengo astelehenean. Alderdi sozialistako kide Frédérique Espagnac senatariak Senatuan aurkeztutako emendakina izan dugu gai nagusia. Horren ondorioz, Frantziako Senatuak “Antolamendu eta kooperazio poloa” desmarxta onartu du Ipar Euskal Herriarentzat. Hitzak ontsa neurtuz mintzo da diputatu sozialista. Solasaldia amaituta, konfiantza hartu ondoren, Espagnacen jarrerak sortu dion samintasuna adierazi digu: “Une latza eta mingotsa bizi dut”.

Frédérique Espagnacek aurkeztutako emendakinaren ondoren “Antolamendu eta kooperazio poloa” sortzeko oniritzia eman du Senatuak. Zein da zure jarrera gertatutakoaren aitzinean? Zer da Poloa delakoa?

Emendakin horren berri astelehen goizean izan nuen, Lurralde Elkar-

“Ez dut ulertu [Frédérique Espagnac-ek] emendakina jartzea eta aldi berean manifestazioan egotea. Nire ohorea eta engaiamendu politikoa zalantzan dago, ez nuen uste hori egun horietan gerta zitekeenik”.





goaren aldeko koordinakundearen bilkuran. Testua ez dut ezagutzen. Legeari dagokionean aztertu behar dut: zein diren baliabide horren abantailak eta desabantailak. Poloa delakoak zer gehiago ekar dezakeen, *Pays* egitura baino hobea ote den. Argi dago ez dela guk galdutako Elkargoa. Sindikatu mistoa da, iduriz. Egitura horrek zehazki zertarako balioko duen? Horra galdera! Nik testua ongi landu behar dut, nire esparruko gaia baita. Laster etorriko da Asanblea Nazionalera. Testua edonolako izanda ere, erai-kigarria izan daitekeen neurrian, ni engaiatzen naiz berau lantzeko. Printzipioz berau nola hobetu dezakegun ikusi nahi nuke, funtsean tresna interesgarria izan dadin.

### Harritu al zaitu gertatuak?

Dirudienez, manifestazioa iragarri genuen egunean, berak [Espagnacek] Senatuan aurkeztu zuen emendakina. Elkarren ondoan ginen manifestazioan. Hautetsi bakoitzak badu aritzeko bere manera. Nik ez dut horrela lan egiten. Adibidez, Asanblea Nazionalan aurkeztutako erregioetako hizkuntzari buruzko emendakinak 6. hautes-barrutiko Sylviane Alaux diputatuaren izena ere bazeraman.

### Alaux eta Nicole Péry diputatu ohiarekin batera eman du ezagutera emendakinaren arrazoia Espagnacek.

Nik kontuan hartu dut aritzeko manera hori, baita Senatuak emendakina jaso duen manera ere. Hala ere, hau ere esan behar dut, Spagnacek bere jokabidea azaltzeko eman duen prentsaurrekora gonbidatu nau. Ezin izan dut joan laborariekin hitzordua nuelako.

### Alta, ez zaude ados gertatuarekin.

Ez dut ulertu emendakina jartzea eta aldi berean manifestazioan egotea. Nire ohorea eta engaiamendu politikoa zalantzan dago, ez nuen uste hori egun horietan gerta zitekeenik. Gertatuak gaitzitu nau. Demagun, ni behartua izan banintz emendakin hori aurkeztera, prentsaurrekoa ostiralean emango nuen, manifestazio egunaren aurretik. Horrela ulertuko nuke, nolabait.

### Emendakina azkar pasa zen Senatuan.

Bai, bai, biziki fite. Orain gurera dator. Nik lanari ekin behar diot.

**“Pays egiturak ezagutua zuen engoitik lurraldea. Ezagutza instituzionala eskatu dugu orain”**

### Espagnacen jokabidea traizio gisara hartu al daiteke?

Ez, ez, ez... Ezin dugu traizioaz hitz egin. Berak gezurra esan du omisioz. Ez zigun esan emendakina aurkeztuko zuela. Ez da gauza bera.

### Itzul gaitezen manifestazioaren egunera. 6.000 jende gutxi dela zabaldu da mintzatoki politikoetan.

Ez nago ados. Ezin dugu manifestazioa aritmetika bitartez baloratu. Ez da zuzena, soilik zenbakien arabera manifestazioak aintzat hartzea. Gaur egun jendea batez ere zerbaiten kontra manifestatzen da, ez hainbeste zerbaiten alde. Maineruski hala da. Adibidez, jendea Ezkontza Denentzat legearen kon-

**“Arrunt ezkerreko direnek irribarra aterazten didate. Gu baino ezkertiarra goak omen diren horiek ekar ditzaten langabezia apaltzeko soluziobideak”**

tra manifestatzen da. Guk estatutu bereziko Lurralde Elkargoaren alde manifestatzera deitu dugu. Gaia oso zaila da, partikularra, ez da egunerokoa. Ez da herritar arruntaren mintzagai. Hautetsien gaia da, elkarteetan buru-belarri ari diren herritarrena, politikaz eta ekonomiaz interesatzen den jendearena. Beraz, larunbat arratsean jende kopuru hori biltzea arras ongi dago. Arrakastatsua izan da. Frantziako zein lurraldetan dira

kapable gai horren karietara populazioa mugiarazteko? Ez dut ezagutzen.

### Parisen ez dute ezagutzen gaia edo ez dute ezagutu nahi? Manuel Vallsek, esate baterako.

Euskal Herrian orain dela urte asko garatzen ari den desmartxa [Lurralde Elkargoa] ez da ezagutua Parisen. Maila nazionalako alderdi sozialistako hautetsiek ere, Nicole Péryk berak, ez zuten halako desmartxarrik inoiz eraman Pariserara, ezta Baionako auzapez Jean Grenetek, are gutxiago Michèle Alliot-Marie diputatu eskuindarrak. Maila nazionalako hautetsiek ez dute egundaino Lurralde Elkargoaren eskaera defendatu.

### Bi diputatu eta senatari sozialista bat zarete orain. Historian behin ere gertatu ez dena.

Bai, baina, ni orain urte bat doi naitzela diputatu. Nik ezin dut egin hamaika hilabetetan beste batzuek 30 urtetan egin ez dutena. Konplikatu da. Parisen Euskal Herria bi eratan ezagutua da: era folklorikoa edo era ezkorrean. Era ezkorrean diot, terrorismoa dela eta. Folklorikoa, berriz, paisaia, festak, boneta eta urdaiazpikoa direla eta. Hori da irudia. Alta, ni harro nago lurralde honen ordezkari izateaz. Hainbat alorretan goi-mailako teknologia lantzen da hemen, adimen handiko jendea ari da eremu askotan. Parisek kontuan hartu beharko luke ezin duela lurralde guztietan eredu berdinen arabera antolaketak ezarri. Tokiko eta berezko ezaugarriak ditugu hemen. Bakoitzak bere lurralde proiektuaren arabera antolatu behar du. Parisen ez dute ongi ezagutzen Euskal Herriko Garapen eta Hautetsien Kontseiluak. Ez dakite Euskal Herriko eredu baliatu izan dela beste lurraldeetan, ezta hemengo kontseiluen lan egiteko modua erabili dela ere.

### Harrizkeoa...

Bai. Hautetsiak, ekonomia eta gizarte eragileak elkartu gara, baita mugimendu zibilak ere. Esperimentazio prozesua izan da, aitzindariak gara.



**“Harro nago lurralde honen ordezkari izateaz. Hainbat alorretan goi-mailako teknologia lantzen da hemen, adimen handiko jendea ari da eremu askotan. Parisek kontuan hartu beharko luke ezin duela lurralde guztietan eredu berdinen araberako antolaketa ezarri”.**

Espagnacek horrela defendatu du bere ekimena prentsaurrekoan: “Kontua da lege bat ziurtatzea Euskal Herriaren ezagutza lortzeko eta lurraldearen garapen iraunkorra bermatzeko”.

*Pays* egiturak ezagutua zuen engoitik lurraldea. Guk orain ezagutza instituzionala eskatzen dugu. Eta horregatik galdatu dugu Lurralde Elkargoa.

**Aldeko edo aurkako bozka emango al duzu Asanblea Nazionalean?**

Erran dizut. Testua aztertu behar dut legearen arabera zer egin daitekeen ikusteko, eta gainera, behar haxe daukat: nire jarrera Koordinakundearen, Hautetsien eta Garapen Kontseiluen norabidean adostu nahi dut. Lanean hasi behar dugu denok. Neronek ez dakit zehazki zer den Poloa. Imajinatzen dut. Ez dut uste guretzat ezer berezia denik. Kanpainako edo landetako polo bat al da? Frantzia landetako poloak eta polo metropolitanoak daude. Euskal Herria ez da landa soilik. Biak bilitzen ditu, eta herrialde bat da.

**Zer ondorio atera duzu gertatuaz?**

Gobernua ez dela prest Lurralde Elkargoa onartzeko. Hori hemengo

eragile eta sektore guztiek barneratu dute jada. Alabaina, Frédérique Espagnac bera Lurralde Elkargoaren aldeko manifestazioan zegoen. Ez dakit orain zer egin nahi duen, zehazki ez dakit.

**François Hollandek lehen urtea bete du Errepublikako presidente bezala. Gobernuaren bilana, oro har, ez da baikorra. Zein da zure balorazioa?**

Hollandek ez du urte honetan inkesten arabera gobernatu. Hasteko, Sarkozyren eskutik eskuinak utzitako egoera txarrean dagoen herrialdea zuzendu behar du. Frantzia larriki ukituta dago. Alta, berak ez du populismoa egin nahi, presidentzian dago erreforma justuak egiteko. Urteko bilanaren balorazioa aski ona da, ari gara sakoneko lan oldarkorra egiten: justizia ari gara berritzen, erreforma eta itzur-

**“Frantziako demokrazia higituz eta ahulduz doa. Ageriko da, uste genuen baino kontserbadore gehiago dago Frantzian”**

tze fiskalak lantzen. Gizartearen eskaerak betetzeko lanean ari gara. Egia da, langabetu asko dago. Neurri anitz jarri dugu abian: enprestan kreditu lehiakorrak, baita belaualdi kontratuak deituak ere. Ez da aski. Baina neurriak zentro-ekzkerkoak dira. Borondate handiz ari gara, alor horretan gaizki gaudelako. Ez gaude arlo publikoaren finantza ekonomizatzen gisan. Murrizketak ezinbestekoak dira, bistan da, justuak izan behar dituzte. Erreformak biziki dira konplikatua, eta berauek ongi azaldu behar zaizkio jendeari. Hollande, oro har, ongi ari da. Nazioarte politikan ongi ikusia da, eta Europan ere bai.

**Ezkerreko askok ez du Frantziako Gobernuaren politika ezkerrekotzat jotzen.**

Nik aldiz ezkerreko politikatzat jotzen dut, politika errealistatzat. Errealitateak eskaintzen dituen aukeren arabera egiten dugu politika, uste osoz, errealtateari lotuta.

**Politika posibilista...**

Posibilista... nolabait esanda. Arrunt ezkerreko direnek irribarra aterarazten didate. Gu baino ezkertiaragoak omen diren horiek ekar ditzaten langabezia apaltzeko soluziobideak. Soluziorik al dute?

**Ezkontza Denentzat legearen aurkako manifestazioek Frantzia kontserbadorea azaleratu dute.**

Egia, hala da. Frantziar errepublika gero eta zaharkituago dago. Ezkontza Denentzat legearen inguruan edota PMA egitasmoarekin (Medikuak Lagundu Ugalketa) gertatua ikusi besterik ez dago. Ezin izan dugu Asanblea Nazionalean PMA onarrarazi, adibidez, Espainian egin dutena. Pentsa ezazu non geunden eta non gauden. Frantziako demokrazia higituz eta ahulduz doa. Ageriko da, uste genuen baino kontserbadore gehiago dago Frantzian. Gizarteak ez du egoera politikoa aldatzeko ahalmenik, aurrera egiteko tratatuta dago. Belgikan, Espainian edo Portugalen erreformak errazago onartzen dira Frantzian baino. Horra errealtatea. ■





# «Geneetan sartuta daukagu izaera komunitarioa»

Berria Taldeko kontseilari ordezkari kargua hartu du Iban Arregik (Azpeitia, 1975). EHUko Informazio Zientzietan lizentziatua, *Euskaldunon Egunkarian* hasi zen 1997an eta Berria Taldeko hainbat arduratan ibili da. Uztarrria Kultur koordinakundeko lehendakari ere izana da.

| URKO APAOLAZA AVILA |

Argazkiak: Karlos Corbella

**Zertan desberdinduko da zure lan ildo aurrekoarengandik?**

Ni taldean lan egiten ohituta nago eta Joanmarik [Larrarte] ere hala egiten zuen. Talde lan horretan ahalik eta gehien sakontzen saiatuko naiz. Beti izan da inportantea, baina garai zail hauetan gehiago.

**Berriak galerak izan ditu eta publizitatea eta diru laguntzak beherantz doaz.**

Momentu zaila da, baina euskal hedabideentzat behin ere ez da momentu onik izan. Halako erabakia hartzeko orduan ez nau baldintzatu momentuak berak, hobe izanda ere ez litzateke errazagoa izango.

**Internetek gero eta indar handiagoa du baina hedabideek paperetik jaten segitzen dute. Hala ere, garbi duzue sarean edukiak ixtea ez dela bidea. Zergatik ateratu duzue konklusio hori?**

Gure helburua da ahalik eta jende gehienak euskaraz kontsumitzea, eta barrerak jartzen hasiko bagina, gure buruaren kontra egin genuke. Bestalde, gurean ere badago jendea kanpora begira, eta konklusio hau ateratu dugu: bideragarritasun aldetik gure tamainak ez



**“Momentu zaila da, baina euskal hedabideentzat behin ere ez da momentu onik izan”.**

duela aukera handirik ematen. AEBetan egin dituzten probetan ikus liteke nola jaisten den kontsumitzaile kopurua, hori hona aplikatuko bagenu...

Ez dugu erabat baztertzeko ordainpeko sistemak ezartzea, baina beste

modu kualifikatu batzuetan, eta ez informazio jario jarraituan. Gure apustua da papeko informazioa irekita egotea eta hala izango da.

**Internetek eskaintzen dituen komunikazio aukerak izugarriak dira, papeko kazetaria ondo egokitzen ari al da horietara?**

Nahi baino makalago ari gara egokitzen. Baina normala da, kontuan eduki behar da egunkariaren kasuan papeko produktio maila handia eskatzen duela eta bere entrega orduak dituela. Baina gaur egun edonork daki kazetariak informazioa landu behar duela, ondoren ikusiko da zein euskarritan eskaini. Zoritxarrez ez dugu baliabiderik. Joaten zara egunkari handietara eta ikusten duzu Interneterako produktio oso handia dutela dedikazio aldetik, bananduta egon ez arren. Kataluniako *Ara* egunkarian, adibidez, kazetari batek produzitzen duenaren %60

Interneterako da. Zer tamaina behar duzu halako zerbait egiteko?

**Zein urrats emango duzue horretara bidean?**

Duela hiruzpalau urte hartu genuen erabakia erredakzio multiplatafor-



**“Kataluniako Ara egunkarian, adibidez, kazetari batek produzitzen duenaren %60 Internetarako da. Zer tamaina behar duzu halako zerbait egiteko?”**

ma izateko eta prozesua irekita dago, gero eta kazetari gehiago ari dira Interneti begira idazten. Orain Berria.info berri behar dugu eta pauso gehiago emango ditugu hori azkartze aldera; askoz ageriago egongo da kazetari bakoitzaren produkzioa, bideoa, argazkia edo testuan izan. Firmarekin gehiago jokatu da.

**Zein eredu izango duzue kontuan webgunea berritzeko?**

Aztertzen ari gara eta askorik ezin dut aurreratu. Planteatzen ari garen bidea da Internet eta papera ahalik eta gehien bereizten joatea, nahiz eta egunerokoak hori zailtzen duen. Ez dut esan nahi paperekoa ezkututuko dugunik, ikusgarri egongo da, baina iritzi atal sendo bat osatzera goaz, blogariek eta iritzigileekin. Eguneko produkzioa ere nabarmenduko dugu. Osagarritasun hori nahi dugu, iruditzen zaigulako oraindik beharri-zan handia dugula paperarekiko.

**Herritarrak kazetari izateaz asko hitz egin da azkenaldian, baita horizontaltasunaz ere, zer iruditzen zaizu?**

Kontzeptua ez da berria. Hogei urte atzera egiten badugu, herri aldizkarietako kronisten sarea herritar kazetaritza mota bat zen. Momentu hauetan Internet buruhaustea da ekonomikoki, baina kazetaritzarentzat justu kontrakoa da; aukera ugari irekitzen ditu eta horietako bat da herritarren sarea. Deitu daiteke

kazetari, kronista edo informatzaile, baina uste dut ona dela sare horrek eman dezakeen informazioa aprobetxatzea.

**Kalitatea bermatu daiteke?**

Hanka sartuko genuke kazetaritzaren funtzioa kontuan hartuko ez bagenu. Interneten horizontaltasuna aprobetxatzea ona da, baina kazetariak informazioa klasifikatu eta analizatu behar du, eta horrek dedikazioa eskatzen du. Kazetaritzaren behar hori etorkizunean ere egongo da, baina nik positiboki baloratzen dut parte hartze hori. Gaur egun oso ona da AskeGunean, kazetaria bera ez ezik, inguruan jendea egotea produzitzen eta kazetaritza lana egiten, zeren-eta non dago muga?

**“Internet buruhaustea da ekonomikoki, baina kazetaritzarentzat justu kontrakoa da”**

**Parte-hartzea nola sustatu duzue?**

Modu zabalean planteatuta, akzionistetatik hasi eta albisteari komentarioa egiten dionera arte. Proiektua bera ere beti izan da oso partehartzailea; esaterako, BerriaLagunen kanpainarekin urtero batzar bat egiten hasi gara eta hortik sakontzen joan nahi dugu.

**Berriaren bideragarritasun ekonomikoa BerriaLagun gehiago eginez bermatu nahi duzue. Komunitatearen babes ezinbestekoa ahultasuna ala sendotasuna da?**

Gure komunitatea eta hizkuntza ahula da eta horri uko egingo bagenio gure burua engainatzen arituko ginatke. Ezin dugu merkatu parametroetan bakarrik mugitu, komunitatearen beharra beti egongo da. Alde horretatik gabezia bat izan daiteke, baina indargune bat ere bai. Gaur egun krisia hedabide guztiana da, ez ahulak garenona soilik. Guk geneetan sartuta daukagu izaera komunitarioa, zerbait naturala bezala da; goxatu behar da, harremana landu, baina ez da hutsetik sortzen. Beste batzuk orain hasi direnean, ikusi dute ez dela hain erraza. Ez da gauza bera kioskoan eroslea izatea edo harpideduna izatea, kontzeptua ezberdina da.

**Zerbitzuen dibertsifikazioan “bide txiki ugari” lantzen ari zarete. Nola ikusten duzu merkatua?**

Paperaren gainbehera arrazoitzeko salmentak eta harpidetzak aipatzen dira, baina jaitsiera handiena publizitate arloan gertatzen ari da. Gure fakturazioa erdira jaitsi da eta hori ordezkatu duen diru sarrera potolorik ez dago. Lehen hiru klasi-koak harpidetza, salmenta eta dirulaguntzak ziren; orduan ikusi genuen hori birpentsatu behar zela eta beste batzuetan ere oinarritu behar genuela. Hala ere kontziente gara horrekin ez dugula lortuko lehengo diru kopurura itzultzea.

**Zertan da Tolosaldeko komunikabideen artean (Hitza, Galtzaundi, Txolarre irratia eta 28 Kanala telebista) duzuen proiektua?**

Oinarrian dagoena da, informazioa euskaraz ahalik eta eraginkortasun handienarekin ematea. Tolosaldean euskaraz informatu eta komunikatu duen hedabide edo gune sendo bat sortu nahi dugu, eskualde horretan hegemonikoa izango dena, erdararen gainetik. Horretarako, denok elkarrekin lan egitea da formula. Bertakoak ari dira proiektua lantzen, esaterako, telebistako informatibo bat aprobetxagarria izatea irratirako... Tolosaldean, bakoitza bere



aldetik joanda mugara iritsi garela ikusi dugu, eta proiektu hau saltoa emateko modu bat izan daiteke.

**Esportagarria da?**

*Hitzaren* bidez gauden eskualdeetan aztertzen ari gara, baina ez du zertan formula bera izan behar. Eskualde eta proiektuen izaera kontuan eduki eta errespetatu behar da. Urola Kostan, adibidez, ari gara antzeko hausnarketa bat egiten.

**Tokiko hedabide askotan sinergiak batzeko ahaleginak egiten ari dira. Berria Taldean hausnartu al duzue euskal hedabideen sarearen antolaketaz?**

Ez dugu hausnarketa hori egin. Nik uste ahalegina egin beharko dugula beste herri normalek bezala guk ere kioskoan –eta ez naiz soilik paperaz ari– hedabideen eskaintza ahalik eta osatuena edukitzeko. Egungo egoeran arriskua dugu atzeraka joateko, gutxiago eta gutxiago izateko. Berrantolatu beharko da, batzuetan fusionatu eta bestetan ez, produktu berriak sortu... Galdera da: zer egingo dugu irabazteko? Eta irabazi esaten dudanean ez da soilik ekonomikoki bideragarria izatea, baizik eta eraginkorra izatea. Hausnarketa hori sektoreak egin behar du eta Hekimen hor dago.

**Hekimenen hedabide handiak eta txikiak biltzen dira, izaera ezberdinekoak. Zein izan da gakoa guztion artean ados jartzeko?**

Nik uste gakoetako bat krisia eta etorkizuneko ziurgabetasuna izan dela. Bestetik, behingoagatik denbora hartu dugula. Gutxienez bi

**Berria Taldea**

**Langileak:** Berria Taldean 230 langile. Partaide den enpresak kontuan hartuta (*Hitzak*, 11amaika, Irrien Lagunak...) 300 langiletik gora.

**Enpresak:** EKTSA S.A., Euskal Editorea SL (*Berriaren* argitaratzailea), Jarduna SL (Administrazio zerbitzuak), Ehuntzen SL (informatika zerbitzuak), Bertako Hedabideak SL (tokiko proiektuak garatzeko sortutako enpresa), Etxeraino SL (banaketa zerbitzuak) eta Irigarri SL (zerbitzu komertzialak).

**Administrazio Kontseilua:** Beatriz Zabalondo (lehendakaria), Josu Amezaga (lehendakariordea), Iban Arregi (kontseilari ordezkaria eta idazkaria), Emilio Majuelo, Gartzzen Garaio, Pilar Kaltzada, Edurne Alegria, Idurre Maortua, Joanmari Larrarte, Gurutze Izagirre eta Joxean Alustiza.

**Hedapena:** Papereko *Berriari* CIESek egunero 64.000 irakurleko datua ematen dio. *Berria.info*-ri egunero 31.000 irakurle eta hilabeteko irakurleak 77.000. *Hitzari* CIESek egunero 82.000 irakurle ematen dizkio, eta asteen behineko irakurleak 118.000.

urte egon gara hausnartzen eta eztabaidatzen; prozesu luze horretan pertsonak elkar ezagutu dugu, konfiantza sortu da eta beldur asko mahai gainean jarri ditugu horiei buruz hitz egiteko.

**“Arriskua dugu euskarazko hedabideok atzera egiteko, gutxiago eta gutxiago izateko. Galdera da, zer egingo dugu irabazteko?”**

Euskal hedabideak estrategikoak badira, zer aldatu behar da dirulaguntzen politikan?

Dirulaguntzak deialdi sistema iraunkor batera eraman beharko

genituzke. Izan daitezke urtetik urtera aldatzen ez diren deialdiak edo hitzarmen aukera ezberdinak. Helburua da behin behinekotasun egoeratik ateratzea. Dirulaguntzak ez lirarteke soilik izan behar ustiapen kontuak orekatzeko, etorkizuneko oinarriak jartzeko ere bai, inbertsioak egiteko teknologian, antolaketan, sustapenean... Era-kundeek euren adierazpenetan diote euskal hedabideak estrategikoak direla, eta egia da dirulaguntza dezente jasotzen dugula, baina sektorearen etorkizuna bermatuko duten inbertsioez ari naizenean, ez naiz soilik ari euskara sailez, baizik eta gobernuetz, azken batean industria bat ere bagarelako. ■



**inguru**  
ABENTURA

- Abentura kirolak
- Ezkonurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidaiak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18. Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947  
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com



# Naturari lotua, asanblearioa, eta galizieraz

Orain dela 50 urte, hainbat gurasok erabaki zuten euren seme-alabentzat eskola euskalduna nahi zutela. Eta ikastolak sortu zituzten. Orain dela bi urte, hainbat gurasok erabaki zuten euren seme-alabentzat eskola galiziarra nahi zutela. Eta lehen Semente sortu zuten, eskola galziarraren hazia.

| EIDER PALMOU / TXERRA RODRIGUEZ |

Argazkiak: Josu Gaintza

GENTALHA DO PICHEL zentro sozialean sortu zen ideia. Compostela (Coruña, Galizia) inguruko jendarte mugimendurik biziena batzen da haren inguruan. Administrazioek zer emango itxaron barik, eurek erabaki zuten eskola galziarraren lehen hazia ereitea. Sentitu, pentsatu eta egin.

Izan ere, Galizian ez dago bermatua galiziera hutsezko irakaskuntzarik, 0 eta 6 urte bitartean. BNG eta PSGren gobernupean jarri ziren martxan galescolak, baina PPK 2009an programa ordeztu eta egun ez dago murgiltze eredurik irakaskuntza publikoan. Are gehiago, hirietan eskolak umeak erdalduntzen ditu. Alvaro Mera, Sementeko –galizieraz hazia esan nahi du *sementek*– hezitzailearen ustez, “Santiago, ohikoa da umeek eskolan etxetik dakarten galiziera galtzea. Beraz, Sementek nahi du etxetik galiziera dakarten umeek hizkuntza ez galtzea. Baina baita etxetik ez dakartenei galizieraz bizitzeko espazioa eskaintzea ere”.

Euskal Herritik 13 pertsona, soziolinguistak, irakasleak, artistak –Porrotx eta Marimotots besteak beste–, haraino hurreratu ginen

Naturarekiko harremana Sementeren bereizgarrietako bat da. Ortua eta oilategia dauzkate.





Bruno Vilela, Sementeko aita

## «Galizierazko eskola nazionalaren lehen hazia izan nahi du»

Zergatik erabaki zenuten zuen alaba Sementen matrikulatzea?

Motiborik indartsuena hizkuntza izan zen. Lagun eta senideekin ikasi genuen eskola gure seme-alabak erdalduntzeko tresna zela. Sementek, ordea, bermatzen digu gure alabak jarraituko duela galizieraz egiten eta, gainera, kalitatez. Hori izan zen arrazoirik garrantzitsuena. Baina, horrez gain, badaude beste arrazoi batzuk ere: hezkidetza, naturarekin eta ekologiarekin harremana izatea, eskola laikoa izatea, eta abar.

Zelan hartu dute zure familian, lagunartean eta abarretan erabakia?

Oso ondo hartu dute, familiak behintzat. Familiaren muina garen Marta, Joana eta hirurok pozez zorutzen gaude. Umea ikaragarri pozik dago. Asteburuak ez zaizkio asko gustatzen, Sementera etorri nahi duelako. Aitita-amamek, osabek, izekoek eta abarrek ere oso



Aurreiritziak baztertu eta gurasoei Sementera hurbiltzeko deia egin die Vilelak. Argazkian, Joana alabarekin.

ondo hartu dute. Azken finean, euren ikusten dute umea zein pozik dagoen bere eskolarekin eta horrek egon zitezkeen muga guztiak apurtzen ditu. Horietako gehienak Sementeko bazkide egin dira, familia ia osoa etorri da eskola ezagutzera eta pozarren ikusi

dute espazioa. Gainera, proiektuak ilusioa pizten du eta hori igarri egiten da.

Semente ezagutzen ez duen bati, zelan azalduko zenioke zer den?

Nik animatuko nituzke hizkuntzarekiko eta beste heziketa mota batekiko kezka duten guztiak proiektua ezagutzera, espazioa ezagutzera, hezitzaileak ezagutzera. Aurreiritziak bertan behera uztera, alegia. Semente proiektu irekia da, proiektu herritarra, komunitarioa. Eta hazteko bokazioa duena, gainera. Galizierazko eskola nazionalaren lehen hazia izan nahi du.

Hasten den proiektu oro bezala, ilusio asko pizten du, nahiz eta garai zailtan egon, bai hizkuntzaren aldetik baita ekonomikoki ere. Baina Sementek lortu du umeak poz-pozik egotea. Horregatik, jendea etortzea nahi dugu, probatzea, eta gustukoa badute, parte hartzea.

Santiagoko Semente eskola ezagutzeko asmoz. Baita hemengo ume eta ez hain umei hango errealitatea erakusteko ere. Hizkuntza gutxituen arteko zubiak eraikitzeke, edo hobeto esanda, hango eta hemengo hiztunen artean zubiak eraikitzeke. Kulturen arteko igurtziak egiten ibili gara hangoekin, kulturen arteko zirriak eta lazta-nak. Ideiak eta emozioak trukatzeko, alegia.

Eta zer da Semente? Galiziera hutsez diharduen eskola da, bi eta sei urte bitarteko umeentzat. Baina hori baino gehiago da. Pedagogia eraldatzailea darabilte. Ume libre,

arduratsu eta kritikoak sortu nahi dituen eskola da. Eta, horretarako, hainbat ezaugarri ditu haien pedagogiak: eskola laikoa da, hezkidetzaren praktikara eramaten du, asanblea bidez zuzentzen da, naturarekin bat egiten du –kanpo aldean ortua eta oilategia dute– eta komunitateari irekitako eskola da, besteak beste. Alvaro Meraren iritziz, “guk ez dugu nahi umeak eskolari egokitzea, baizik eta eskola umei egokitzea”.

Gurasoen parte-hartzea ere nabarmendu beharrekoa da. Sementen hartzen dute parte, asanbladetan, eguneroko bizitzan eta

dirua batzeko ekimenetan. Hezkuntza komunitatea osatzen dute, hezitzaile eta umeekin batera.

Lehen urratsak egin ditu Sementek. Bi umerekin hasi eta etengabe handitzen ari da. Bigarren urtea du, 13 ikasle ditu, eta hirugarren urterako plaza kopurua gainditu dute. 25 haurrek izango dute Sementen ikasteko aukera. Vigo aldean lanean hasi dira beste Semente bat egiteko asmoarekin, eta Ferrol inguruan ere, bada mugimendua; galiziera hutsezko avoieskola bat sortuko da hurrengo ikasturtean. ■



Babeslea: IVAP

**IVAP**  
HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

IVAPen gomendioak web-orriak idazteko

**Komunikazio  
Elektronikoa**



**Kudeaketaren  
Kalitateari**  
2012

# Neurriak hartu aurrera egiteko

Donostiako Herri Harresian gertatutakoaz hitz egin zuen Lander Arbelaitz ARGIAko kazetariak Eusko Legebiltzarrean (ekainaren 12an), EH Bildu alderdiak hala eskatuta. Hau da agerraldi hartan adierazitakoaren laburpena.

| LANDER ARBELAITZ |

ALEX LARRETXI



“Ertzaintzak ez du herritarrak horrela tratatzeko eskubiderik. Kazetaria izan edo manifestaria izan” (Lander Arbelaitz).

DONOSTIAKO 8 GAZTE espetxeratze-ko agindua eman zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak Segikoak izatea egotzita. Jarduera politikoa egiteagatik 6 urteko kartzela zigorra ezarri zieten.

Donostiako Boulevardean eginda-ko agerraldian kartzela aginduak hautsi zituzten eta herri harresia antolatzeko deia zuten. Legeak injustutzat jo zituzten eta desobedientzia zibila planteatu zuten.

ARGIAko erredakzioan gaiari buruz hitz egin genuen, eta gaia informatiboki jarraitu behar genuela erabaki genuen.

Gure komunitatearentzat intereseko gaia zela argi genuen. Azken urteotan Interneten apustua indartu dugu eta ikusten dugu, hedabide txikia izan arren, eskura ditugun baliabide murriztekin kazetaritza ezberdina

jorrazteko aukera dugu halako gaietan. Euskal kazetaritzak puntan egon behar duela pentsatzen dugu, eta ARGIAN puntan egon nahi dugu.

AskeGunekoa hasi eta astebetara 24 orduko herri harresia antolatu zuten. Momentu horretatik aurrera, hiru egun eta hiru gauez, ni bertan izan nintzen. Inork ez zekien zer gertatuko zen. Oso momentu intentsuak ziren eta ni bideoetan hori dokumentatuta uzten saiatu nintzen.

Apirilaren 19an, Ertzaintza bazetorrela jakitun, goizeko 6:00etan esnatu ginen. Bertan zeuden 800dik

gora pertsona. Hainbeste egun bertan pasa ostean, momentu informatibo gorena iritsi zen.

Desalojoa hasi zenean, hori grabatzera joan nintzen lehen lerrora. Ertzain batek esan zidan “*de aquí no pases*” eta bertan hartu nuen nire posizioa, badaezpada ere txartela eskuan nuela, ikus zezaten kazetaria nintzela. Momentuan bertan bideoak grabatu eta YouTubera igotzen ari nintzen.

Halako batean, ertzain bat ikusi nuen niregana zetorrela. Lehen gauza mugikorra airean bota zidan. Inongo dudarik gabe adierazpen askatasunaren aurkako erasoak izan zen hau, kazetari txartela agerian nuela ni erditik kentzera etorri baitziren.

Lurrera bota ninduten lauren artean. Nik ez nuen onartzen eta

**Eskura ditugun baliabide murriztekin kazetaritza ezberdina jorrazteko aukera dugu halako gaietan**



## Segurtasun Sailaren aukera galdua

ARBELAITZEN LANA gehiago edo gutxiago gustatuko zaio Iturra-teri, baina kazetaritza egiten ari zela ukatzea ez da serioa. Kazetarien komunitate zabalak eman dio sostengua bere jardueragatik, besteak beste, Hekimenek eta EAEko eta Espainiako kazetarien elkarte garrantzitsuenek. Kazetaritza lana da, ona eta saritzeko modukoa gainera.

Bai, onartu behar da, Ertzaintzaren jarrera Donostian ez zen izan Turkiako poliziak Taksim plazan izan duena, ezta seguruenik duela hiru urte izango zukeena. Baina hori onartu ondoren, EAJk badaki testuinguru horretan ertzain asko deskontrolatu zela eta publikoki onartu beharrean, estaltzera jo du.

ARGIAk arrazoi asko ditu Eusko Jaurlaritzarekiko esker ona agertzeko, besteak beste, erakunde honen diru-laguntzak bere kazetaritza jarduerara ahalbidetzen duelako. Baina bata ez du bestea kentzen eta Ertzaintzak eta Segurtasun Sailak jarrera desegokiak dituztenean, salatu beharrekoa salatzea da gure lana. Hori da kazetaritza serio eta profesionala, eta horretan jarraituko dugu.

**Xabier Letona**



[argia.com](http://argia.com) Maltzagatik blogean analisi osoa irakurgai.

nire indar guztiakin erresistitu nintzen. Zutik jarri nindutenean, ertzain bat nire mobila zapaltzen ari zela ikusi nuen eta nire indar guztiakin lurrera bota nintzen. Bota azpitik mugikorra hartzea lortu nuen, eskuan zauria egin nuen, eta hor, nire zorionerako grabatzen hasi zen. Dena amaitutakoan Youtubera igo nuen.

**Ezin nuen grafikoki ongi dokumentatu; agenteei esan nien kioskotik jaisten uzteko eta ezetz esan zidaten**

Tristeza iruditzen zait segurtasun indarren kide batek “*que se muera*” esatea, gorrotoz beterik, ezer egin ez dion pertsona bati.

Benetan haserretu nintzen kioskoan sartu gintuztelako kazetari guztiak. Ordubetetik gora egin nuen bertan. Ertzaintzako kide dexte lurrean eserita zeudenen aurka era oso agerikoan kolpeka hasi zen. Nik kioskotik jaitsi nahi nuen, ezin nulako grafikoki ongi dokumentatu, eta

eskaileretan zeuden bi agenteei esan nien jaitsi nahi nuela eta ezetz esan zidaten.

Kioskotik atera behar nuela erabaki nuen. Nire aurrean 300 ertzaineko lerroa zegoen, guri bizkarra ematen. Neure aurrean zegoena, 5 bat metroa zegoena, furgonetara joan zen eta zuloa geratu zen biren artean.

Banekien kioskotik jaisten eta harrapatzen baninduten gaizki bukatuko nuela. Pentsatu nuen neure lana libre egiten utziko zidaten leku bakarra harresiaren barruan zela, eta gainera, nik bertatik bertara erakutsi nahi nuela gertatzen ari zena. Ematen ari ziren kolpeak benetan dokumentatu behar genituela sentitzen nuen eta denbora aurrera zihoala. Harresian jarri zen eta kolpeak jasotzen ari zen jende horrek gugandik espero zuela hori ongi dokumentatuko genuela gerora salatzeko.

Kioskotik jaitsi nintzen salto batean, ahal nuen azkarren korrika joan, agenteen artean pasa eta jendearen gainera bota nintzen. Momentu horretan sorbalda atera

## BESARO LANDA HOTELA



*Iratiko oihanaren sarreran*



Tel.: 948 890 350  
[www.besaro.es](http://www.besaro.es)  
[hotel@besaro.es](mailto:hotel@besaro.es)

[www.facebook.com/HotelRuralBesaro](https://www.facebook.com/HotelRuralBesaro)



## Iturrate (EAJ): “Salto eginda kazetari izateari uztea erabaki zenuen”

**Iñigo Iturrate (EAJ):** Emozioa transmititu didazu, baina espekulazioz eta balorazioz betetako kontaktuz egin duzu, ez da objektiboa izan. [Arbelaitz AskeGunera salto egiten ikus daitekeen bideoa erakutsi du].

Ulertzen dut tentsioz bizi izan zenuela, baina ez dut ikusten eredugarria izan ez zen ekintzarik. Batez ere ikusita une batetik aurrera erabaki zenuela kazetari izateari utzi eta AskeGunearen parte izatea. Horretarako eskubide osoa duzu, eta AskeGunean kazetariak bazeuden, baina kazetarien gunetik salto egiten duzun momentutik aurrera, erabaki horrek ekarritako ondorioak kazetari txartelaren atzean zuritu nahia ez da bidezkoa.

**Lander Arbelaitz:** Iturrate jauna, ez dakizu nola poztu naizen erakutsi duzun bideoagatik, orain arte

ez neukan ikusia, eta egun horretatik gehien harrotzen nauen gertakizuna izan zen Herri Harresira jauzi egiteko hartu nuen erabakia. Galdetzen didazu hori kode deontologikoan sartzen den? Noski baietz, kazetaritza da inor ezkututzen saiatzen dena erakustea, areago boterea tartean dagoenean, areago jendearen eskubideak urratzen ari direnean. Gaizki iruditzen zaidana ez da kioskora sartzea kazetarien segurtasuna babesteko, baizik handik ateratzen ez uztea, gure mugikortasuna eragotziz.

### Estitxu Eizagirre Kerejeta

**argia.com** Agerraldiaren kronika osoa irakurgai, hala nola alderdi politikoek Lander Arbelaitz egindako galderak eta honen erantzunak.



### 75.000 ikustaldi

Lander Arbelaitzi egindako erasoaren bideoa Youtuben dago eta 75.000 ikustaldi izan ditu.



### 42.000 ikustaldi

Herri Harresiaren barrutik 20 minutuko bideoa grabatu zuen Arbelaitzek. 42.000 ikustaldi izan ditu.



zitzaidan. Hau esaten dut, gerora *Berria*n egin zidaten elkarriketa digitalan besoa lotuta atera nintzelako, eta jende askok pentsatu duelako hori Ertzaintzak egin zidala.

Nire obsesioa momentu horretan barnetik grabatzea zen. 10 bat minuturen ostean, sorbalda sartu nuen bertako batzuen laguntzaz, zutik jarri nintzen erakusteko kazetaria nintzela, ez manifestaria, eta bertatik grabatu nituen azken 20 minutuak.

Ertzain gehienak, amaierarako erabat deskontrolatuta zeuden. Nire begiekin ikusi nuen. Jendeari begietatik, belarrietatik behatzak sartzen zizkieten. Kolpeak ere ematen zituzten, mina egitera joan ziren. Nik ez nuen momentuan entzun, baina neska

dezenteri komentario matxistak egin zizkieten. Ertzaintzaren jarrera ez zen eredugarria izan.

### Neurriak hartu

Arazo handi bat daukagu Ertzaintzako kideek duten inpunitatearekin. Zer esan segurtasun sailburua bera ere, barkamena eskatu beharrean, ni manifestaria nintzela eta beste guztiak bezala atera nindutela esanez ateratzen bada nirekin harremanetan jarri ere egin aurretik. Benetan uste dut politikari zintzo eta arduratsu batek beste jarrera bat hartu behar lukeela.

Halere, iruditzen zait aurrera egin behar dugula, eta herri hau aurrera egiteko gogoz dagoela.

Seguru nago beren lana zintzo egiten duten ertzainak ere lotsatu egiten direla denen izena zikintzen duten agente horietaz. Ni kazetaritza modu manipulatu lotzarik gabe erabiltzen duten kazetariekin lotsatzen naizen bezala.

Hau konpontzeko, lan egin behar da gogor, gorrototik lan egiten duten agente horiek identifikatu eta zuzentzeko, edo bestela kaleratzeko. Ez dadila berriz sekula gertatu.

Horrez gain, nahita nahiezkoa da herritarrei begira ere neurriak hartzea, benetan ikus dezagun Jaurlaritza honek garai berrietara egokitzeko gogoia duela. Ez duela halako praktikak egiten dituzten agenteak ezkutatzeko jarraitu nahi, eta beraz, modu oso garbian konplize izan. Berea baita ardura politikoa, eta hori garbi eduki behar dugu.

Horretarako neurri zehatz bat exijitu nahi diot Eusko Jaurlaritza honi. Ertzainak identifikatuta joan daitezela argi eta garbi. Hitzetatik ekintzetara pasatzeko momentua da. Sinetsi nahi dut Jaurlaritzak ez duela beste alde batera begiratuko eta pauso bat emango duela aurrera, elkarbizitzaren alde. ■

**argia.com** *Taupadak* blogean Lander Arbelaitzen agerraldiaren bideoa ikusi eta adierazpen osoa irakurri daiteke.





## Emun kooperatibak lan eremu berriak zabaldu ditu

DUELA HAMASEI URTE lana euskalduntzeko kooperatiba gisa sortu zen Emun. Alor sozioekonomikoan buru-belarri ibili ondoren, lan eremu berriei helduko die hemendik aurrera, eta euskara eta berrikuntza soziala izango ditu misio. Aldaketok, euskal jendartearen behar berriei erantzuteko asmoz

egin dituzte. Lan mundua euskalduntzeko bideari muzinik egin gabe, lau lan eremu banatu dituzte aurrera begira: hizkuntza, kultura, aniztasun eta immigrazioa eta parte-hartzea. Alor horiei euskaratik eta euskaraz erantzungo diete.


Ekainaren 20an, lan ildo eta irudi berriaren aurkezpen publikoa egingo

du Emunek Bilbon. Ekitaldian Kike Amonarrizek hitzaldia eskainiko du galdera honi erantzun nahian: *Nola lotzen dira euskara, kultura, immigrazioa eta parte-hartzea Euskal Herrian?* Aurkezpen saioan ondoko agerpenak ere izango dira: Plataforma per La Lengua, Irizar kooperatiba, Fagor Taldea eta Emun aholkulari taldea.

## Euskontu: deskontuak euskaraz gozatzeko webgunea

EUSKONTU.COM-EK astean gutxienez hiru deskontu eskainiko ditu. Webgune honen berezitasuna da aukeran jarritako produktu eta zerbitzu guztiak euskaraz kontsumitzea bermatuta dagoela. Besteak beste, kontzertuak, jatetxeak, kirol ekintzak, estetika, moda eta kultur ekitaldiak eros ahal izango dira.

ARGIA aldizkaria Euskontu Taldearekin elkarlanean ari da. Webgunean edozein *euskontu* erosiz gero ARGIA aldizkariako harpidetza %25 merkeago lor daiteke. Bestalde, euskontu.com-en bere burua iragartzen duten negozioek ARGIA aldizkarian komunikazio plana %35eko beherapenarekin egiteko aukera izango dute.



## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### Mondragon Korporazioa ez da Bankia

BANKIAREN “lehentasunezko” akzioen aurrean, txoko honetan duela hilabete batzuk esaten genuen Mondragon Korporazioak argitu behar zuela hainbat bankuk komertzializatutako Eroski eta Fagorren “menpeko ekarpenen” egoera. Oraingoan, Korporazioak erabateko isiltasuna mantentzen du. 2002 eta 2007 urte artean 40.000 lagunek egindako ekarpen horiekin 800 milioi euro ingesatu zituen bere kutxan. Urte hauetan guztietan interes gozoak izan dituzte milaka pertsonak (%5 eta %7 artekoak) ekarpen horien bidez. Hilabete batzuetatik hona, ordea, ekarpen horiek egin zituztenek beren balio nominala %60 murriztu dela ikusi dute, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren aginduz. Bankiak eta beste hainbatek komertzializatutako “lehentasunezko” akzioen kasua ikusita, badago bere aurrezkiak pixkanaka galduko dituela uste duenik. Hala, korrik ez zuten aurreikusitako ekarpenak egin zituztenek, Eroski eta Fagorrek kiebra jo ezean behintzat, eta hori pentsaezina zen Korporazioak duen indarra jakinda.

Kontua auzitegietan eta Eusko Legebiltzarrean dago. Mondragon Korporazioak irtenbide bat lor-

tzeko apustua egin beharko luke seriozki. Bere onerako, eta baita Eroski, Fagor, eta Korporazioarengan sinetsi eta aurrezkiaren bidez hura finantzatu zuten guztien hobe beharrez ere. Ekarpenean milioi horiek gabe Eroskik eta Fagorrek ezin izango lukete biziraun. Ez dirudi auzitara jotzea soluzio onena denik aurreztaileen arazoa konpontzeko. Mondragon Korporazioak, Eroskik, Fagorrek, ekarpenak merkaturatu zituzten erakundeek eta aurreztaileek beraiek, adostasuna bilatu behar lukete. Hasierako balio nominala bermatuko lukeen adostasuna, esaterako, bi eta bost urte arteko arrazoizko epe batean aurrezkiak itzultzea.

Mondragon Korporazioa ez da Bankia. Bere barruan ez da izan eta ez dago lapurrik edo iruzurgilerik. Orain aukera dauka hori erakusteko, bera bezala, badaudelako kapitalista ez den “negozioa egiteko beste modu baten” alde egiten dutenak.

Juan Mari Arregi



# AFOG, baserri txikien autogestioa sustatzeko eredu bat

ELB sindikatuaren *Laborari* astekariak eman digu aukera AFOG elkarteaz egotzeko, honek 30. urteurrena ospatzeko festa txiki bat antolatu duela eta. Erakunde txiki baina eraginkorra azaldu digu, bestelako enpresa eta talde oso txikien autokudeaketa beharrei erantzuteko ere ikasgai interesgarriak eskaintzen dituena.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

1980KO HAMARKADAN GAUZA ASKO gertatu zen Iparraldeko laborantzian ere, hizkuntzan, kulturean, politikan, ekonomian eta oro har konpromiso militantea eskatzen zuten jardueraz guztietan bezala. *Laborari*ren 1.026. aleak horien artean itzalpean bizi izan den erakunde txiki bati eskaini dizkio orri nagusiak. “AFOG: 30 ans à former des paysans autonomes” dio lerroburuetan, sarrerako testu honekin: “AFOG elkarteak 30 urte ospatzen ditu aurten eta besta giroan pentsatua du bere biltzar nagusia ekainaren 8an Lekornen. Kontabilitatean eta etxaldearen kudeantzan laborariak laguntzeko sortu zen elkarteak 1983an. Gaur egun oraindik, hautu eta lan moldeetan autonomoak izaiten formatzen ditu”.

Iraultza usainetik gutxi dauka enpresa txiki baten kontabilitateak. Aldiz hori eta oro har kudeaketa txikun eramatea funtsezkoak izan dira urteotan bizirautea lortu duten etxalde txikietako baserritarrentzako. Antzinako nekazaritza lugin zaharrenak hiltzearekin ahiturik, 1970eko hamarkadatik aurrera baserri enpresa txikitzat hartu ditu administrazioak. Nekazaritza industrialak kontrolatzen duten konpainia, lobby, lege eta merkatuekin lehiatzera kondentatutako mikroenpresak.

Euskal Herriko Laborarien Bata-suna (ELB) sortzearekin bateratsu antolatu zuten Association pour la Formation de la Gestion (AFOG) zerbitzu enpresa txikia, gaur Frantzia mailako Inter-AFOG (tartean “c” hizkia sarturik) koordinazioaren barnean dena.

Bere lan metodoa interesgarria gertatuko zaio nekazaritzan ari ez den askori ere, profesionaloi autogestioan jarduteko bidea errazten dielako. Jean Pitrau bezalako lider historikoek predikatu eta gaur berriro aldarrikatzen den jendeen beregintasuna. AFOGen bazkide diren 630 laborariak –80 omen ziren hasieran– 5-6ko talde txikietan egiten dute lan, egiturak dauzkan zortzi langileetako baten laguntzaz.

“AFOGen helburua da bere bazkideen autonomia garatzea”, esplikatu dio astekariari Gotaine-Hirabarnen (Zuberoa) nekazari izanik elkarteko presidente den Frantxua Etxebestek. Lehen saioetan nekazariari laguntzen zaio kontabilitatea bere gain hartzen (zergak, bankuak, laguntzak, BEZa...) ondoren urrunago joateko, nor bere erabakiak hartu eta bereganatu arte.

Taldeakako lana da gakoetako bat. Taldeak iraukorrak izanik, bertako elkarlaneko nekazari bakoitzak errazago dauka eguneroko mundu txikian ikusi ezin dituen ohartzea.

*Laborari*ren argazkian, AFOGeko arduradun eta langileetako batzuk bazkide baten arditegian: ezkerretik hasita, D. Ainzi, M. Darrieu-merlou, M. Petrisans, P-P. Bidegain, M. Duhalde (eskuetan duela urteurrenaren afixa), F. Etxebest eta M. Irigoien. Astekarian azaldutako lan-eskaintza ere argigarria da. Euskaraz plazaratua, dio: “AFOG elkarteak animatzaile-formatzaile bat bilatzen du, denbora osoz lan egiteko. CDI kontratu pean. etxaldearen kudeatze orokor bati buruz, laborarien formakuntza segurtatu beharko du. Bilatzen diren gaitasunak: jendeekin harremanetarako errestasunak izatea, talde lanerako gaitasuna ukaitea, Baxoa+2 urte edo gehiago, ahalaz laborantza kudeantza, juridikoki, fiskal eta informatikan formakuntza edo/eta esperientzia zerbait ukaitea, laborantza munduaren ezagutza izatea, euskaraz jakitea hobe (...) CV [curriculum vitae] eta motibazio gutunak euskaraz idatzia...”

AFOGek, berriz, 30 urteotan bildutako informazioarekin eta kanpotik eskuratuetakoekin eskaintzen dio behatoki ekonomiko baten zerbitzua.

Talde lanari esker argiago ikus ditzake kide bakoitzak aurrera begira non dauzkan hobetzeko aukerak edo aldatzekoak. Alde horretatik, AFOGen plan estrategikoez baino gehiago kudeaketa estrategikoz mintzo dira.

Frantzia mailako Inter-AFOGeko zuzendaritzan dagoen Mailux Petrisans donoztiritarrak, baserritarra hau ere, esan du: “AFOG ez dago eredu bat erakusteko, arras egindako bide bat, baizik perspektiba bat emateko. Pertsonari ahalbiderratu behar dio nekazaritza den ofizioa bere gain hartzea”.

## Burmuinak auzolanean

Etxebesten hitzetan, nekazariak berak dira bere etxaldearen kontabilitatea eta kudeaketa elkarrekin egiten dituztenak. Horretatik abiatuta, gai gehiagotara zabaltzen da gogoea, izan irabaziak edo bizi baldintzak hobetzeko.

Dio Etxebestek: “Ez daukagu laboraria ez den bazkiderik, eta interesatzen zaiguna pertsona bera da, bere ofizioan ongi sentitu dadila. Norbera ongi dagoelarik lanbidean, edozeri egin diezaioke aurre”.





‘egizue zerria’ edo ‘egizue konkonbra’ [pepinoa]! Orain, bere bidea arra-pentsatu behar da, laneko moldeak ere. Diru ahal gutiagorekin mozkina atera behar da”.

Nekazariak bizi dituzten egoera gordinak AFOGeko taldeetako bileretan azaltzen eta eztabaidatzen dira. Irigoienek zenbait zifra eskaini ditu: etxalde baten bataz besteko mozkina baldin bada 10.000-13.000 eurokoa, baserrien erdiak kopuru horren azpitik dabilta, eta hauen barruan erdia zerotik hurbil, batzuk zero azpitik ere bai tarteka.

Azken urteotan administrazioaren primak handitu zaizkien arren, etxaldeen bataz besteko diru sarreak doi-doi iristen omen dira krisi aurreko kopuruetara. Horra zein neurritaraino eragin duen 2008ko krisiak Iparraldeko baserrietan, nahiz eta hemengo egoerak ez duen lortzen Hegoaldeko hirietako langabetuen tasaren oihartzunik.

Hona krisiaren hasiera nola bizi izan duten AFOGen, Mattin Irigoienek hitzetan: “Gure behatokia egiten dugularik, larrazkenean ateratzen ditugu aitzineko urteko xifrak eta taldeka presentatzen ditugu. 2008an gastu guztiak gora zirelarik, berehala simulazioa egin genuen, laborariei erranez aitzineko urteko gauza berdinak eginez zer heinetan izanen zuten irabazia. Elekrika karga bat bezala sortzen da berehala. Lanean ari delarik, ez da berehala ohartzen zeri buruz ari den, 2-3 urteren buruan bakarrik, eta murruren kontra heltzean ohartzen da itzala handitu dela...”. ■



Batzuetan irabaziak hobetzeko edo zenbait kasutan nekazaritza uzteko ere bai, gogorregia zaiolako.

Frantziako nekazaritzan CUMA deitzen zaio traktorea edo bestelako tresneriak elkarrekin partekatze sortutako auzolanaren forma juridikoa da. Etxebestek AFOGentzako darabil horrekin hitz-jokoa: “Guk gure burua ikusten dugu CUMAG bat bezala, ‘une cooperative de matière grise’, taldean egina. Partekatzea da asmoa, animatzailea hor dago metodologia jartzeko, hitz egindakoaren laburpenak jasotzeko, zeren eta idatzitakoa baita etxera daramaguna. Baina taldea da sustatzen gaituena”.

AFOGen sortutako informazioaren adibide bat ematen du *Laborari*

berean elkarteko zortzi langileetako bat den Mattin Irigoien idazle eta antzerkigile ezagunak. Elkarte bera baita Iparraldeko nekazaritzaren behatoki aparta, Irigoieni galdetu diote nola ikusten duen egoera azken krisia lehertu denetik. Irigoienek uste du aldaketa oso handia ari dela gertatzen, eta fite, 1993an Europa mailan nekazaritzarentzako erabakitako PAC famatuek ekarritako aldaketa baino gogorragoa.

Baserritarrari maniobratzeko tartea estutu zaio, dio Irigoienek. “Etxaldeak oreka baldin bazuen 2008a baino lehengoko lan moldeekin, 2008tik aitzina oreka hori hausten da ainitz etxaldetan. Zer da jokoan? Nehon ez da idatzia zer egin behar den. Lehen erraiten zen:



ZINKUNEGI  
OPTIKA

**Garantia.**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

## Betoz haize eta ideia berriak

**ARGIA-KO** zuzendari izendatu nindutenean, 2002ko urruti hartan, batek baino gehiagok luzatu zidan ea zorionak edo doluminak eman behar zizkidan. Egia esan, beldurtua nintzen, orduan zuzendariordea izanagatik ere, zuzendari kargua batetik bestera erori zitzaidalako gainera. Baina kemenez eta konbentzimenduz heldu behar zitzaion ardura berriari, eta nik “zorionak, jakina” erantzuten nion txantxa-zitzada hari. Nire beldurretakoa zen ea 1919an sortutako proiektu hura ni zuzendari nintzela agortuko ote zen. A ze zama!

Eta hamabi urte urte ondoren, pozik utziko diot ARGIAko zuzendari izateari. Zama bat gainetik kenduta eta beste batzuk bizkar-reratzeko prest. Dozena bat urte aski eta sobera dira halako postu batean egoteko, haize berriak ezinbestekoak dira, bereziki goimailako arduetan. Betoz indar eta ideia berriak, denei egingo digute on.

Nire lasaitasunerako, gainera, gure aldizkariak hemen jarraitzen du, euskal komunikazio esparruan erreferentzia argia izanez, bai paperean eta baita Interneten ere. Eta estu, aldi berean. Talde eta proiektu gisa 2002an baino sendoago bagaude ere, krisiak gure ohiko estutasunera itzularazi gaitu, oparotasunaren izpiek hainbat urtetan gu ere zertxobait ukitu ondoren.

1997an ekin genion Interneten ARGIAN. 2002-2003an ez genion ikusten konponbiderik euskarri berriak gure kutxan sortutako diru zuloari eta geure buruari zorrotz galdetu behar izan genion: “Irudikatzen dugu gure komunikazio proiektua Internet gabe?”. Eta erantzuna ezetz izan



zen, argia gainera. Orduan, aurrera egin behar, ez zegoen beste aukerarik.

Hamarkada bat geroago, oraindik argitu barik dago Internetek ekarri duen negozio aldatetarena, baina orduan baino askoz argiago ikusten da komunikazioaren puntan egon nahi duenak, hor ere egon behar duela. Kazetariarentzat, gainera, aukerak biderkatzen dira. Paperezko prentsaren heriotza iragartzen den sasoiari, hala izan ez dadin gogotik lan egingo dugu. Papelean ere, kalitatezko informazio landuari eusten dionak iraungo du, eta egunerokotasunetik urruntzen den neurrian aukera gehiago izango bide du gainera. Egunerokotasuna, gero eta gehiago, Interneten dago. Gure aste-karia ongi posizionatua dago, informazioaren eguneroko zurrumbilotik at, irakurleari informazio landua eta konprometitua eskainiz, honek ere beste patxada batez irentsi dezan. ARGIA.COM dugu egunerokorako tresna, eta hor bai, urtetik urtera erronka sendoagoak hartu ditugu eta hartuko ditugu aurrerantzean ere.



**KAZETARI** lanetan jarraituko dut etxe honetan, eta izango dut lanik: Internetek, teknologia berriek eta sare sozialek kazetaria egokitzen behartzen baitute gaur egun, eta egiten ez duena estu ibiliko da. Hori bai, ez gaitzala tresna eta teknologiaren olatuak besterik gabe harrapa, haren azpian, beti bezala, edukia baita egiazki garrantzitsuenak. Irakurlea, ikus-entzulea, eduki onari lotzen zaio. Eta non da hori? Iturrietan, formazioan, liburuetan, sarean, kalean... denean apur bat. Eta batez ere, kazetariaren independentzian. Ados, gaitza da –mitoa diote batzuek–, baina bilatu behar da. Ni behintzat saiatu naiz, bai zuzendari gisa eta baita kazetari gisa ere. Hala jarraituko dut, besteak beste orri honetan, zuzendari berriak kontrakorik adierazten ez didan bitartean behinik-behin.


Zeren eta, irailetik aurrera, orain erredaktore buru ari den Estitxu Eizagirre izango da ARGIAko zuzendari berria. Zortetik handiena opa diot zeregin horretan eta argi izan dezala lan talde osoaren laguntza izango duela. ■





ASTE HONETAKO

# zozketak



## Bilboko Kafe Antzokia

Bazkaria  
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2  
Bilbo BIZKAIA

[www.kafeantzokia.com](http://www.kafeantzokia.com)

1



## Donostiako Aquariuma

4 harpidunentzat  
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1  
Donostia GIPUZKOA

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

2



Ekain berri


## Ekainberri

3 harpidunentzat  
bina sarrera

Portale, 9  
Zestoa GIPUZKOA

[www.ekainberri.com](http://www.ekainberri.com)

3



## Iruñeko Planetarioa

3 harpidunentzat  
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g  
Iruñea NAFARROA

[www.planetario.org](http://www.planetario.org)

4



## Illimani

2 liburu opari

[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2372. Argia)

### ANDRA MARI JATETXEA

- Txomin Etxebarria Bereziartua (Bilbo)

### DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Gurutze Aiertzagüena Aranzibia (Zaldibar)
- Jose Mari Balerdi Munduate (Alegia)
- Eva Ruiz de Galarreta Crespo (Noain, Elortzibar)
- Edurne San Martin Larrañaga (Eibar)

### KIROLAZ BADAKIT

- Portugaleteko aek Euskategia (Portugalete)
- Imanol Arluziaga Esnal (Donostia)

### BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)
- Mikel Leturiaga Gorrotxategi (Zarautz)
- Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)

### ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Iñaki Gabilondo Millet (Leintz-Gatzaga)
- Xabin Mujika Tolaretxipi (Asteasu)
- Jaione Goienola Guarrotxena (Galdakao)

Gunea

argia

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com)

[www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)



\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete



Rafael Edwards / La Tercera

## Klase ertaina jomugan

Gizarte klaseen bilakaera Europa mendebaldean eta garapen bidean diren herrietan

### Analisiak

Eguzki Urteaga soziologoa • Imanol Esnaola Gaindegiko koordinatzailea